

# **Jesukristo gore Jeinaren Jesukristo gore Jeinaren Ebanjelio Sainiua**

**PEDRO PRUDENZIO HUALDE MAYO**

Oraiko ortografiaz eta  
anotazione batzuk

**JOSÉ ESTORNÉS LASA**

## **Don Pedro Prudencio Hualde Mayo**

Nació en la villa de Vidángoz el 26 de abril de 1823 y fue bautizado en la Iglesia parroquial el 28 del mismo mes.

Fue hijo de D. Pedro Fermín Hualde, de Vidángoz y de Doña María Josefa Mayo, de Uztárroz.

Fueron sus abuelos paternos D. Miguel Ramón Hualde y Doña Gregoria Urzainqui, ambos de Vidángoz.

Fueron sus abuelos maternos D. Juan José Mayo y Doña María Josefa Martín, ambos de Uztárroz.

Fue padrino del bautizo D. Pedro Estebán Villoch, de Roncal.

La inscripción está firmada por Don Pedro Francisco Salvoch, Vicario. (Libro II de Bautizados f. 338 vuelto. Parroquia de Vidángoz).

El día 5 de diciembre de 1879 inscribió la última partida de su puño y letra en el citado libro.

Cinco días después, el 9 de diciembre falleció nuestro ilustre bidangozta a los 55 años de edad.

El día 11 se celebraron los funerales de primera clase y fue sepultado en el camposanto de la villa.

Firma la inscripción de su defunción D. Dionisio Martín, Coadjutor de Uztárroz, encargado de la Parroquia.

No se tiene noticia del lugar en donde fue sepultado pero se piensa que fue al lado de la iglesia.

## **PRUDENZIO HUALDE MAYO JEINAREN EBANJELIO SAN MATEO'REN PUBLIKAZIONIA.**

Karlos Gonzalez Etxegaray jeinak beren Luziano Bonaparte Prinzipearen esku-izkribuen Katalogoan, Madrid'en 1979'gan urtean, erraiten du:

"Esku izkribu kau arras publikatu zen RIEV'en 1934'ko libruan, XXV, 527 eta xarrakitan dren orrialtetan eta 1935'ko libruan, XXVI, 185 eta xarrakitan dren orrialtetan."

Libru koriek ekusi tut eta 1944'garnean Kapitulu leinetik as Kapitulu amargarneaino eltan da 24'garnen bersikulo artio.

1835'ko libruan amargarneko 25garnetik as amairorganeaino eltan da 48'garnen bersikulo artio.

Gunean kantik aintzina, ogoitazortzigarnen kapitulu'ko 20'garnen bersikulo artio ez dela publikatu erran droked.

Ebanjelio guzuak 87 orrialte tu eta argitaratu drenak 37 dra.

## **San Mateoren ebanjelioari buruz goar bizpor.**

### *1. Sudurrezko soinia.*

Baidra letra bizpor sudurrez erraiten drenak eta pean \_ bat izartan dur.

### *2. -IUA atzizkia -IA.*

Bidankotze'ko ele anitx dra triptongo edo iruletrako koneki.  
Izaba eta Uztarrotze'ko eletan -IA ekustan tugu.

### *3. NION, GINION, ZION flexioneak:*

Gipuzkoaerazko NUEN, GENUEN, ZUEN.  
Erronkariko NAUN, GINAUN, ZAUN.  
Gipuzkoako NION, GENION, ZION.

### *4. -RA atzizkia.*

Gipuzkoeraz, errira, etxera, itxasora e.a. erraiten da.  
Erronkarikoeraz, iriARA, itxasoARA e.a. erraiten da.

### *5. O azken letra denean.*

Letra koni A, O, E xarraikitan ba zabei O gentan da eta U izanen da.  
Kapitulo, kapituloa KapitulUa erraitan da.  
Ebanjelio kontan kori ekusten denean: kapitulua kapituloa dela xakiten dugu.

### *6. U azken letra denean.*

Letra koni A edo E xarraikitan ba zabei U gentan da eta -IUA erraiten da. Bidankotze'n eta Izaba eta Uztarrotze'n -IA.  
Buru, burua, burIUA Bidankotze'n, BurIA Izaba eta Uztarrotze'n, erraiten da.  
Esku, eskIUA, eskIA, eskuetan, eskietan.  
Zuek, zIek.  
Ene ustean betik burua, eskua eta zuek eskribitu bear dugu, eleen beitartea gordetako.

### *7. -A atzizkia.*

Gipuzkoeraz atzizki kau, ene ustean, sobra erabiltan da eta erronkarieraz bearrezko denean solo.

G. ni naiz artzaia, gu artzaiak gera betik erraiten da.  
E. ni naz artzai, ni naz artzaia, gu gra artzai, gu gra artzaiak.  
E. ni naz artzai, artzaintzan lan egitan dur. Ni naz artzaia, dakizun artzaia naz.

### *8. -KI, -KIN atzizkiak.*

Bidankotzen -KIN eta Izaban eta Uztarrotze'n -KI.  
Korrela gizonekin eta gizoneki.

### *9. H letra.*

Ebanjelioaren textoan H bizpor agertan dra baya ele berberak, geienetan H bage erabiltan dra. Gentu tut.  
Herdoes betik H bateki aparezitan da eta H koriek eitzi tut.

### *10. K- letra baten aurkian.*

Beste dialektuetan H bateki astan dren ele bizpor Erronkari'ko mintzoan K batekin eskribitan drela.  
Hau, hori, honetan e.a. kau, kori, kontan e.a.

Berze altetik kabia, korapillo, gipuzkoeraz K bateki eta Erronkari'ko mintzoan abia, orapillo, k bage.

### 11. Aditzaren izenak.

#### *Lengoko izena.*

Aditzaren izen berbera da: xin, xoan, ekusi, izaguntu, eragu eta kantik xin naz, xoan naz, ekusi dur, izaguntu dur eta eragu dur.

#### *Oraiko izena.*

Aditzaren azken silaba -TU -DU balimada, genten da eta aren lekuan *betik* -TAN izartan da. Izaguntu, izagunTAN dur.

Azken letra n, i edo beste balimada, gentan da eta -TAN edo -TEN izartan da.

Xin, xitan, xiten; xoan, xoatan, xoaten; ekusi, ekustan, ekusten.

Xitan naz, xoatan naz, xiten naz, ekustan dur, ekusten dur e.a.

#### *Geroko izena.*

Azken silaba -TU edo -DU balimada, genten da eta -TEN izartan da *betik*.

IzagunTU, izagunten dur.

Azken letra n, i edo beste balimada, genten da eta -EN izartan da.

Xinen, xoanen, ekusen, eraguen.

Xinen naz, xoanen naz eta ekusen dur.

### 12. Ebanjelioaren faksimil.

Hualde'k eskribitruk da.

## **PUBLICACIÓN DEL EVANGELIO DE SAN MATEO TRADUCIDO POR DON PRUDENCIO HUALDE Y MAYO, PÁRROCO DE VIDANGOZ**

Dice D. Carlos González Echegaray en su Catálogo de los manuscritos del Príncipe Luciano Bonaparte publicado en Madrid en 1979:

«Este m/s fue publicado *íntegramente* en RIEV (vol. XXV, 1934) páginas 527 y sig. y vol. XXVI, 1935, pág. 185 y sig.)».

Vistos los tomos de la RIEV resulta que no se publicó íntegramente sino así:

Tomo XXV: Desde el Capítulo I hasta el Cap. X, versículo 24.

Tomo XXVI: desde el versículo 25 del Cap. X hasta el Cap. XIII, versículo 47.

Allí se interrumpe la publicación y deja de publicarse desde el versículo 48 del Cap. XIII hasta el final que es el Cap. XXVIII, versículo 20.

*El Evangelio tiene 87 páginas y se publicaron 37.*

*La versión de RIEV tiene muchos errores de transcripción.*

## **NOTAS AL EVANGELIO DE SAN MATEO.**

### 1. Sonido nasal.

Lo representamos con un asterisco sobre la letra nasal como «eskribain\*». Para no confundir la n nasal con la ñ normal.

### 2. Terminación -IUA.

Es un triptongo y cuando es -IUAK, -IUEK *es también una sola sílaba.*

En Izaba y en Uztarroz es -IA, -IAK, *una sola sílaba.*

### 3. Flexiones NION, GINION, ZION.

En guipuzcoano son: NUEN, GENUEN, ZUEN.

En roncalés: NAÚN, GINAUN, ZAUN.

Son en guipuzcoano NION, GENION, ZION.

#### 4. Sufijo -RA.

Lleva en roncalés una A delante: -Ara.

Guipuzcoano: errira, etxera, mendira.

Roncalés: erriara, iriara, etsiara, mendiara.

#### 5. Palabras terminadas en O.

Seguidas de A, O, E, cambian la O por U al pronunciarlas. Capitulua (kapituloa).

#### 6. Palabras terminadas en U.

Seguida de A, E, O se pronuncia -IU en Vidangoz y -I en Izaba y en Uztarroz.

Buru, buria; esku, eskia; ikusgu, ikusgia; zuek, ziek, eskuetan, eskietan; ainguru on, ainguri on.

Buriua, eskiua, ikusgiua, eskiuetan.

*Excepción:* Su, hace sua (sú-a).

#### 7. Sufijo -A.

Se usa sólo cuando se determina concretamente el nombre.

Yo soy pastor, sin -A. Ni naz artzay.

Yo soy EL pastor, con A. Ni naz artzaya.

#### 8. Sufijos -KI, -KIN.

Vidangoz: gizonekin. Izaba y Uztarroz: gizoneki.

#### 9. Uso de la H.

En el texto hay algunas haches pero las mismas palabras se usan mayoritariamente sin hache por Hualde.

Las pocas que había las he suprimido. He conservado la H de Herodes porque lo pone siempre con hache.

#### 10. La K.

Palabras que se escriben en otros dialectos con hache o sin hache en roncalés lo hacen con K.

Au, ori, onetan, hau, hori, honetan son en roncalés kau, kori, kontan.

Sin embargo tenemos en roncalés abia y orapillo que en otros dialectos son kabia y korapillo.

#### 11. Nombres verbales.

a) De Pasado. Son los mismos nombres de los verbos: egin, xin, xoan, eragu, izaguntu, ekusi e.a.

b) de Presente. Los verbos terminados en -TU lo hacen *siempre* en -TAN: izanguntan dur, lo conozco.

Los demás lo hacen en -TAN o -TEN *indistintamente*: xitan, xiten, xoatan, xoaiten, ekustan, ekusten, eragu, eragutan.

c) de Futuro. Los terminados en -TU lo hacen en -TEN *siempre*: izagunten dur, yo lo conoceré.

Los demás en -EN: xoanen, xinen, eraguen, ekusen *siempre*.

#### 12. Página facsímil.

Es escrita a mano por Hualde.

# JESU-KRISTO GORE JEINAREN EBANJELIO SAINTIUA SEGUN SAN MATEOK

LEIN KAPITULUA. *Jesu-Kristoren jenealojia: bere konzepziona Espiritu Saintiuaren obraz, eta bere sortarzuna.*

1. Jesu-Kristoren jenealojia. Daviden seme, Abraanen seme.
2. Abraanek enjendratu zion Ixaaki, Ixaakek enjendratu zion Jakobi: Jakobek enjendratu zion Judasi eta bere anaxer.
3. Judasek enjendratu zion Tamarenganik Faresi eta Zarari. Faresek enjendratu zion Esroni. Esronek enjendratu zion Arami.
4. Aramek enjendratu zion Aminadabi. Aminadabek enjendratu zion Nasoni. Nasonek enjendratu zion Salmoni.
5. Salmonek enjendratu zion Raabenganik Boozi. Boozek enjendratu zion Rutenganik Obedi. Obedek enjendratu zion Jeseri. Jesek enjendratu zion Dabidi.
6. Dabid erregek enjendratu zion Salomoni Ariasen emazte izan zenaganik.
7. Salomonek enjendratu zion Roboami. Roboamek enjendratu zion Abiasi. Abiasek enjendratu zion Asari.
8. Asak enjendratu zion Josafati. Josafatek enjendratu zion Jorami. Joramen enjendratu zion Oziasi.
9. Oziasek enjendratu zion Joatami. Joatamek enjendratu zion Akazi. Akazek enjendratu zion Ezekiasi.
10. Ezekiassek enjendratu zion Manasesi. Manasesek enjendratu zion Amoni. Amonek enjendratu zion Josiasi.
11. Josiassek enjendratu zion Jekoniasi eta bere anaxer Judiuak Babiloniara eraman izan zren tenprani abantxu.
12. Eta Judiuak Babiloniara eraman izan zren geroztik, Jekoniasek enjendratu zion Salatieli. Salatielek enjendratu zion Zorobabeli.
13. Zorobabelek enjendratu zion Abiudi. Abiudek enjendratu zion Eliazimi. Eliazimek enjendratu zion Azori.
14. Azorek enjendratu zion Sadoki. Sadokek enjendratu zion Akimi. Akimek enjendratu zion Eliudi.
15. Eliudek enjendratu zion Eleazari. Eleazarek enjendratu zion Matani. Matanek enjendratu zion Jakobi.
16. Jakobek enjendratu zion Joseri, Mariaren esposoa, nortarik sortu zen Jesus, sobreizenez Kristo.
17. Kola dra amalaur jenerazione guziuak Abraamendanik Dabidendaino eta Dabidenak judiuak Babiloniara eraman izan zren bitartio, amalaur jenerazione; baitare amalaur dra jenerazioniak judiuak Babiloniara eraman izanik geroz Kristo bitartio.
18. Baya Kristoren sortiua izan zen gisa kontan: Zegalarik bordaltruk Maria bere ama joserekin, erden zen konzebitu ziola bere entrañetan Espiritu Saintiuaren obraz, bein xunto egon bagetarik.
19. Baya Jose bere senarra, izaitian zena gisa justo, eta nai ezaularik infamatu pensatu zion eiztia ixilki.

20. Ura pensamentu kontan zagolarik, nonta Jeinaren ainguru bat aparezitu zitzaun ametstan erraitan: Jose Dabiden Sernia, etzazu errezelarik ekun rezibitako zore etsen Maria zore emaztia, zeren izan dena enjendratruk bere entrañetan, tzu Espiritu Sautiuaen obra.
21. Eta kola erdiren dizu seme bat zoini izaren baitzu izenez Jesus; bada ura da salbatu bear diona edo libratu bere iria bere bekatiuetarik.
22. Zoin guziua egin zen kunplitruk izan ledin Jeinak antzinetik erran ziona Profetaren medioz, zoinek erraiten baitu:
23. Xakin zazei Berjin batek konzebiten eta erdiren diola seme bat, zoini izaren dabeizenez Emanuel, zoinek bueltatruk nai du erran Jangeikoa goreki.
24. Konekin, Josek iratzartiari, egin zion Jeinaren ainguriauak manatu zauna, eta errezibitu zion bere emaztia.
25. Eta ez izaguntu edo tokatu bage, emon zion argiara bere seme Primojenitua, eta izari zaun Jesusen izena.

**BIGARNEN KAPITULUA.** *Maguen adorazionia: Jesusen Ejiptora inesitia inozenten muerte kruela (edo gaxua): Jesus, Maria eta Jose bueltatan dra Ejiptotik.*

1. Sortruk bada izan baikoz Jesus Judeako Belenen, reinatan ziolarik Herodesek nonta mago banak xin zren iguzki erkingutik Jerusalemara galte egiten: ¿non dago Judiuen erregia akabatu dena sortiaz?
2. Zeren guk ekusi baitigu iguzkiaren erkingiuan bere izarra, eta xin gitra ari adoratiagatik.
3. Kaur entzun zionean errege Herodesek, turbatu zen eta arekin Jerusalem guziua.
4. Eta xuntatan ziolarik sazerdotien prinzipale guziak, eta iriko erakuszale edo eskribaniak galte egiten zabein non biar zion sortu Kristua edo Mesiasa.
5. Zoini ek erresponditu zein: Judako Belenen: zeren kola eskribitu baizion Profetak.
6. Eta zu, Belen, Judako lurra, ezra Judako ziudade prinzipalen artian ziertoki menosena, zerengatik zutarik tzu nontik erkin biar baitu Kaudillo gobernatu biar diona Isrraeleko ene iria.
7. Gunian, Herodesek deitan ztiolarik lagunguarik bage maguak, xakin zion kuidamenturekin beretarik tenpra zointan izarra aparezitu zitzabein.
8. Eta enkaminatan ztiolarik Belenera, erran zabein: fan eta informa ztei puntualki agitan denaz aur konen gainian; eta erdenez geroz abiso emon naztazeiz, ni ere fan nein eta adora tzadadan.
9. Kaur entzun baikoz erregeari, partitu zren: eta nonta izar ekusi zeina iguzkiaren erkingiuan, faiten zen beren antzinian, baratu zen artio eltiari aurra zagon lekiuaren aurkiara.
10. Izarraren ekustiari, anitxki regozijatu zren.
11. Eta etsian sartian, erden zein aurra Maria bere amarekin, eta postratu zrelarik adonatu zabein; eta irikirik bere kofriak, ofrezitu zabein urre, inzenu eta mirrazko presentiak.
12. Eta errezibitu baikoz lotan abiso bat zeuritik ezledilein (edo ezitian) buelta Herodesengana, bueltatu zren bere erriara berze bide batarik.
13. Urak partituz geroz, Jeinaren ainguru bat aparezitu zitzaun ametstan Joseri erraitan zaularik: xagi zte, ar zazu aurra eta bere ama, eta ines edo ezkapa zte

Ejiptora, eta egon zte kan nik abisa eztudan artio zeren Herodesek txerkaten baitu aurra ilaraztako.

14. Xagitan zelarik Jose, artu zion aurra eta bere ama gayaz, eta erretiratu zen Ejiptora.

15. Non egon baizen, Herodes il zen bitartio; zointaz gisaz kunplitu zen Jeinak erran ziona Profetaren mintzoz: Nik deitu nion Ejiptotik ene Semia.

16. Bitartio Herodesek, ekustan zelarik burlatruk maguenganik irritatu zen sobranio, eta ordenu emon zion iltako, Belenen eta bere unguu guziuan aur zauden guziuak, bi urtetarik apal, segun tenpra xakin ziona maguenganik, zointan aparezitu zitzabein izarra.

17. Gunian ekusi zen kunplitruk erran ziona antzinetik profeta Jeremiasek erranez:

18. Ramadraino ere entzun zren mintzoak, anitx nexar eta irago; da Rakel nexar egiten baitu bere semengatik, nai izan bage konsolatruk, zeren ezbaidera bizi edo ezbaidera bizi.

19. Herodesen muertia agituz bertan, Jeinaren ainguru bat aparezitu zen lotan Joseri Ejipton erraiten zaularik:

20. Xagi zte eta ar zazu aurra eta bere ama eta fan zte Isrraeleko lurriara, zeren il baita xa makinatan zeinak aurraren biziaren kontra.

21. Xagitian Jose, artu zion aurra eta bere ama eta xin zen Isrraeleko lurriara.

22. Baya entzutian Arkelaok manatan ziola Judean, lotsatu zen kara faitra; eta abisatruk ametstan, erretiratu zen Galileako lurriara.

23. Eta xin zen bizi izaitra zitudade batian deitan bai zen Nazaret, kunplitan zelarik gisa kontan Profeten errana: Ekunen du izena Nazareno edo izanen da deitruk Nazareno.

**IRORGARNEN KAPITULUA.** *Juan Prekursoreak predikatan eta batixatan. Jesusek nai ekuntu zion izan batixatruk Juanenganik; eta gunian emoitan da izaguntra dela Jangeikuaren Seme Unijenitiua.*

1. Tenpra kartan Juan Bautista eitzi zen ekustra predikatan Judeako desiertoan.

2. Eta erraiten: egin zazei penitencia, zeren abano baitago zeurietako reinua.

3. Kaur da zointaz erran baizen Profeta Isaiasen medioz: da desiertuan klamatan dionaren mintzoa erraiten: prepara zazei Jeinaren bidia: egin dizazei xuxen bere sendak.

4. Eragutan zion Juanek bestido bat kamellozko biloz eta larruzko korrea bat zinturara, eta bere bazkaria zen langosta eta mendiko ezti.

5. Zoatzan bada aren erdeitra gentiak Jerusalem eta Judea guzutik, eta Jordaneko erribra guzutik.

6. Eta errezibitan zein arenganik batixua Jordanian, konfesatan zteilarik beren bekatuak.

7. Baia nola ekustan baizion xitan aren batixuara fariseo eta saduzenetarik anitx, erran zabein: O biborazko kasta ¿nork erakutsi daizeid ez baizik aparienziekin ezkapa zaiztekeila amenazatan daizein iratik?

8. Egin zazei bada penitenziazko frutu dinoak.

9. Eta eiz ztei erraitiaz xen baitan: Abraan aitatako dakagu; zeren nik erraiten daizeid poderoso dela Jangeikoa egiteko arri kuek beretarik sortian Abraani seme.

10. Beira zazei axkora izaririk dagola xa arbolien izorroara; eta arbole oro eragutan eztion frutu on, izanen da ebakirik eta suara egotxirik.
11. Nik egiaz batixatan daizeid urekin mobiaraztako penitenziara; baia ene atzian xin bear diona da ni bino poderosoao; eta ni eztare digno ez naz ari eramaitako sandaliak: kura da batixatu bear daizeinak Espiritu Saintiuan eta suan.
12. Ark daka bere eskiuetan sardia eta sainten du ezin obeki bere llarnia; eta bere garia sarten du graneruan; baia autzak erreren tu il ezdeitegun su batian.
13. Tenpra kuetan xin zen Jesus Galileatik Jordaniara Juanen txerka arenganik batixatruk izaiteko.
14. Baia Juan errestitan zen kartra, erraiten ziolarik: ¡nik bear diez izan batixatruk zoreganik, eta zu xitan zra enegana!
15. Zoini erresponditu zion Jesusek erraiten: eitz nazazu egitra orai, zeren kola konbeni baita guk kunpli tzagun justizia guziua. Gunian Juanek kondeszenditu zion arekin.
16. Batixatu baikoz bada Jesus, uretik erkin zen instantian, zeuriak iriki zitzazkan eta ekusi zion xaisten Espiritiua urxuaren figuran, eta erreposatan aren gainian.
17. Eta sentitu zen zeuritik mintzo bat erraiten: kaur da ene seme maitia, zointan baitakad isaririk ene konplazimentu guziua.

LAURGARNEN KAPITULUA. *Jesukristoren barura eta tentazionia. Buelkatan da Galileara eta isartan du bere bizitia Kafarnaunen: astan du bere predikazionia, eta astan da diszipulo biltra edo xuntatra, eta da gente anitxez xarrekitruk.*

1. Okasione kartan Jesus izan zen eramanik Espiritu Saintiurenganik desiertuara kan izan ledin tentatruk diabiurenganik.
2. Eta berrogei egun berrogei gaiekin barurtuz geroz ekun zion gose.
3. Gunian abañatan zelarik tentazalia erran zaun: Jangeikuaren seme bazra, erran zazu arri korik buelta tiala ogitan.
4. Baya Jesusek erresponditu zaun: eskribitruk diok: ez solo ogiez bizi da gizona, beizik ele edo dispozione Jangeikuaren autik erkitan den oroz.
5. Kontaz geroz diabiuk eraman zitzaun Jerusalemeko ziudade saintiura, eta isari zitzaun tenploaren goienian.
6. Eta erran zaun: Jaungeikuaren semia bazra egox zte kementik apal bada eskribitruk diozu: Enkomendatu daizula bere aingurier, zeinek arten daizeid bere eskiuetako palmetan zore zankua eztein tropeza arri zomaiten kontra.
7. Jesusek replikatu zaun: Baitare eskribitruk diok: Etzu tentaten zore Jangeiko Jeinari.
8. Orainore igan zitzaun diabiuk mendi gora batra, eta mostratu zaun mundiuaren reino guziuk eta bere gloria eta andigua,
9. eta erran zaun: gaiza kuek guziuk emonen daizud, postratan zrelarik ene antzinian, adoratan bainuzu.
10. Erresponditu zaun gunian Jesusek: Aparta adi kortik Satanas zeren baitago eskribitruk: Adoraten tzu zore Jangeiko Jeina, eta ari solo zerbutxaten tzu.
11. Korrekin eitzu zitzaun diabiuk, eta nonta abañatu zren ainguriuk eta zerbutxatan zabein.
12. Entzutian gero Jesusek Juan enkarzelatruk izan zela, erretiratu zen Galileara.



13. Eta eitztan ziolarik Nazareneko ziudadia, fan zen egoitiaz Kafarnaunera, itxasoko ziudade, Zabulonen eta Neftaliren mugante edo altakan.
14. Kola eltu zen kunplitra Isaiasek erran ziona:
15. Zabulonen erria eta Neftaliren erria nontik faiten baita Tiberiadeseko itxasuara Jordanen berze altiara, Jentilen Galilea.
16. Ulunguan eroririk zagon iri konek ekusi du argi andi bat, argi xin dena argitra zaudener muertiaren itzaletako errian.
17. Guniuz geroz asi zen Jesus predikatan eta erraiten: egin zazei penitenzia, zeren abaño baitago zeurien reinua.
18. Erabiltan zelarik egun batez Jesus Galileako itxasuaren erribran, ekusi zion bi anaxe, Simon, gero deitu zena Pedro eta Andres bere anaxa egoixtan erredia itxason, zren bada arrantzari.
19. eta erran zitzabein: xarreki ztei niri, eta nik eginen diez el ztein izaitra gizonen arrantzari.
20. Instantian biak eitzirik errediak xarrekitu zitzazkan.
21. Igartan zelarik antzinarago, ekusi zion berze bi anaxe, Santiago Zebedeoren seme eta Juan bere anaxa, bere erredien konpositan barka batian bere aita Zebedeorekin, eta deitu ztion.
22. Urak gisa berian, eitzirik errediak, puntualki xarrekitu zizazkan.
23. Eta faiten zen Jesus buelta emoitan Galilea guzutik, erakustan beren Sinaguetan eta predikatan ebangeliua edo zeuriko reinuaren berri ona, eta sontotan zoin naiden dolenzia eta erigua irikuer.
24. Korrekin laster egin zion aren famak Siria guzutik, eta presentatan zabein eriguarekin zauden guziuak, eta kexu zrenak gatx difrente eta dolore biziz, endemoniatuak, lunatiuak, perletikatiuak; eta sontoten ztion.
25. Eta segitan zizazkan gente multitud andi bat Galilea eta Dekapoliko, eta Jerusalem eta Judeako, eta Jordanaren berze alteko.

**BOZGARNEN KAPITULUA.** *Jesukristoren sermona mendian. Astan da zortzi bienabenturanzekin. Erraiten du ez zela xin legiaren desegitra, beizik kunplitra.*

1. Baya ekustian Jesusek gente multitud kaur guziua, igan zen mendi batra, non xaseririk abañatu zitzazkan bere diszipuluak.
2. eta irikitan bere au dibinua adotrinatan ztion erraiten.
3. Bienabenturatu espirituazko pobriak, zeren entako baita zeuriko reinua.
4. Bienabenturatu dulziak eta umildiak, zeren ek gozaten baitein lurra.
5. Bienabenturatu nexar egiten deinek zeren ek konsolatrak izanen baitra.
6. Bienabenturatu gose ta egarri deinek justiziaz, edo justo eta saintu izaitiaz zeren ek izanen baitra aserik.
7. Bienabenturatu miserikordiosuak, zeren ek alkanzaten baitein miserikordia.
8. Bienabenturatu biotza argi deinek, zeren ek Jangeikua ekusen baitei.
9. Bienabenturatu bakea prokuratan deinek, zeren ek izanen baitra deitruk Jangeikuaren seme.
10. Bienabenturatu persekuzione sufritan deinek, justiziarengatik edo justo izaitiagatik, zeren entako baita zeurien reinua.

11. Ditxoso izanen zrei gizonek ene kausaz maledika zaizintzeinian edo persegi zaizintzeinian eta erran dazazeinian gaxki gisa guzuz xen kontra.
12. Alegra ztei gunian eta erregezija ztei, zeren baita anitx andi zeurian esperatan daizein rekompensa. Gisa berian persegitu zitzabein profeta xen antzinetik izan zrener.
13. Xek zrei lurreko gatza. Eta gatza egitan bada geza ¿zerekin bueltaten zitzaud savoria? Deustako zerbutxatan ez du, baizik arrojatrak izaiteko eta gente zankopetan erabiltako.
14. Xek zrei mundiuaren argia. Ez deiteke altxa ziudade bat edifikatrak mendi baten gainian.
15. Ixiki ere ez deiteke argia izartako almute baten pean, baizik kandelero baten gainian argitzan etseko guziuer.
16. Kola reluzi tzala xen argiak gizonen antzinian, ekus dokein gisa xen obra onak eta glorifica tzein xen aita zeurietan dagonari edo dagona.
17. Etzazei pensa ni xin nazala legiaren dotrina desegitra ez Profetena ere: ez naz xin aren destruitra, baizik bere kunplimentiuaren emoitra.
18. Zeren egia guziuarekin erraiten daizeid, faltaten dela zeuria ta lurra lein ezik bara dein kunplitu bage perfektoki Legian kontenitan den guziua, aiketa jota bat kain bakotx edo aren puntu bat ere.
19. Eta kola norbaitek kebranta baleza edo auts baleza mandamentu kuetarik bat, txikerrago urdu izanik ere, eta erakuts baleza gizoner egitra gaiza bera, izanen da ekunik txikerrena, edo ez deustako zeurien reinuan; baya guardatan eta erakustan dionak, kori izanen da ekunik anditako zeurien reinuan.
20. Zeren nik erraiten daizeid ez bada xen justizia eskribanena eta farisenena beino osoago eta kunplitrakago, ezrei sarten zeurien reinuan.
21. Entzunik zaudei erran zela xen mayorer: Etzei ilen; eta il lezanak izanen dela kondenatrak ilik izaitra juiziu.
22. Nik erraiten daizeid obro: nornaidenek artzan ojadiza bereanaxari, merexiten du juezak kondena dazan. Eta dei lazanak Raka, merexiten du kondena dazan konziliuak. Baya dei lazanak fatuo, izanen da iburniko suaren reo edo merexidun.
23. Korrengatik, zore oberta altarian presentatan tzun tenpran, kan guartan bazra zoreanaxak diola zomait kexu zore kontra;
24. eitzazu kan berian zore zore oberta altariaren antzinian, eta fan zte leinik rekonziliatra zoreanaxarekin, eta gero utzulen zra presentatra zore oberta.
25. Konpon zte bertan zore kontrariuarekin, zaudelarik bitartio orainore arekin bidean; ez deila izan izar dazaizula juezaren eskiuetan, eta juezak entrega dazaizula nuziuarenetan eta sar dazaizein karzelian.
26. Aseguratan daiz ziertoki ezrela kantik erkinen azken marabidia paka tzazun bitartio.
27. Entzun tzei erran zela xen mayorer:
28. Etzu eginen adulteriorik. Nik erraiten daizeid obro: zoin naidenek mira lezan emazte bati deseogaxtorekin aren beira, erori zen adulteriotan bere biotzian.
29. Eta zore eskoineko begia bada zoretako okasione bat bekatian erortako, erkin zazu eta arroja zazu zutarik kanpo; bada obe dazaizu galtia miembruetarik bat ezik ez zore korpiz guziua fan dein iburniara.

30. Eta zore eskoineko eskiua balimada eskandalo emoitan daizuna edo inzitan bekatiuan erortra, ebaki zazu eta egotx zazu zutarik urrin; bada obe dazaizu gal dein zore miembruetarik bat, ezik ez fandein iburniara zore korpiz guziua.
31. Erran zen: nornaidenek despedi lezan bere emazia, emon dazaula berextarzunaren kartilla.
32. Baya nik erraiten daizeid, nornaidenek despedi lezan bere emazia, ez izaitian adulterioaren kausaz peligrotan isartan diola adultera izaitako; eta bordal zedina matrimoniotik emazte egotxirik izan denarekin, adultero dela gisa berian.
33. Entzunik zaudei ere erran zela xen mayorer: Etzu juramento falsurik eginen, leinaz obe kunpliten dutzu juramento eginak Jeinari.
34. Nik erraiten daizeid obro: ñolare edo deus gisaraz etzazeila juramentorik egin, motibo justorik bage, ez zeuriaz ere, zeren baita Jangeikuaren tronua;
35. ez ere lurraz, da bada bere zankopetako asientua; es Jerusalemenez ere, zeren baita Errege andiaren Ziudadea edo kortea.
36. Eztare etzei juramentorik eginen xaurien buriuaz, bada eztago xaurien eskian egotia xuri edo beltz bilo bakotx bat.
37. Izan deila bada xen mintza moldia: bai, bai; edo ez, ez; zeren kontarik igartan dena prinzipio edo izorro gaxtotarik xiten da.
38. Entzun tzei erran zela: begiz begi, ortzez ortz.
39. Nik baya erraiten daizeid etzazeila agrabiuari egin erresistentu, leinaz norbaitek eratzikitan badaizu eskoineko maxelan, utzul dazazu berzia ere.
40. Eta nai dazaizunari isari pleitu gen dazaizun tunika, emon dazazu ere kapa;
41. eta eramana araztan daizunari bortxa kargatruk milla urratzez, fan zte arekin berze bi millaz.
42. Eskatan daizunari, emon dazazu; eta ez dazazu uka begitartia pretenditan dionari zutarik zomait prestamu.
43. Entzun tzei erranik izan zela: amaten tzu zore projimua, eta (añaditu dizei gaxki) ekunen tzu odio zore enemiguari.
44. Nik erraiten daizeid obro: maite ditzazei xen enemiguak: egin zazei onki aburritan daizeiner; eta orazione egin zazei xer persegitan eta kaluniatan daizeiner.
45. Izan ztein seme xen Aita zeurian dagonaren imitazaleak nork egitan baitu sor dein bere iguzkia onen eta gaxtuen gainian, eta euri egin tzan justo eta bekatarien aurkian.
46. Zeren ezbatzei ekutan amorio beizik amatan daizeiner ¿zer premiu ekun biar tzei? ¿Ez deia kola egiten publikanuek ere?
47. Eta ezbatzei salutatan berzeri baizik xaurien anaxer ¿Zer ekustia du korrek? ¿Ez deya ote egitan ere kaur paganuek?
48. Izan ztei bada xek perfekto xen Aita zelestiala den bikala perfekto, imitatan dauzeilarik al tzein guziua.

*SEIGARNEN KAPITULUA. Prosegitan da Jesus erakustan; eta tratatan du limosnaz, orazioniaz, baruraz; erraiten du ez digula ontarzun xuntatu biar mundu kontako, baizik zeuriko; gore intenzionia biar diola izan xuxen; ez deitekela zerbutxa Jangeikuari eta Mundiuari; eta ekustra emoitzen du konfianza biar diguna ekun Probidenzia dibinuan.*

1. Guarda ztei onki egitiaz xen obra onak gizonen antzinian ekus dazaizein finarekin, berze gisaz etzei errezipiten xen Aita zeurietan dagonarenganik bere premiua.
2. Eta kola emoitan tzunian limosna etzazula nai publika tronpeta sonuz, ipokritek egiten dein bikala xinagoguetan era karriketetan edo plaztetan izantian onratruk gizonenganik. Egiaz erraiten daizeid errezipitu zeila xa bere rekompensa edo pakiua.
3. Baya zuk limosna emoiten tziuanian egin zazu zore ezkerreko eskiak etzan guart emon zore eskoinak egiten diona.
4. Zore limosna bara dein altxatruk; eta zore Aitak ekustan baitu altxatrukago dagona, rekompensaten daizu publikuan.
5. Gisa berian errezzatan tzeinian, etzei izan biar ipokriten gisa, zeinek propositoz izartan baidra orazione egitra txutirik xinagoguetan eta karriken eskinetan izantian ekusirik gizonenganik. Egiaz erraiten daizeid errezipitu zeila xa beren pakiua.
6. Zuk, al rebes, errezzatu biar zinokenian; sar zte zore aposentuan eta borta zerratruk orazione egin zazu sekretuan zore Aitari, eta zore Aitak ekusten baitu sekretuena izanik ere, premiaren daizu publikuan edo guziuen antzinian.
7. Orazionian etzazei gogo ekun anitx xardokitako, jentilez egiten dein bikala, zoiner urdutan baizabei entzunik izan biar deila eta anitxen indarrez.
8. Ez ditzazei nai bada imita: zeren onki baitaki xen Aitak zer biar tzein lein ezik eska dazauzein.
9. Txezei bada nola biar tzein errezzatu: Aita gorria zeurietan zaudena; santifikatruk izan deila zore izena.
10. Xin deila zore reinua; egin deila zore borontatia; nola zeurian kola ere lurrian.
11. Gore egunorozko ogia emon dazaiguzu egun.
12. eta parka daizkiguzu gore zorrak, guk parkatan digun bikala guri zor daikuner.
13. Eta ez gitzazu eitz tentazionian erorra; baizik libra gitzazu gatxetik. Amen.
14. Zeren parkatan batzei gizoner ofensak xen kontra egiten teinak, baitare xen Aitak zeurietan dagonak parkaten daizei xaurien bekatiuak.
15. Baya xek ezbatzei parkatan gizoner, eztare xen Aitak ez daizei parkaten bekatiuak.
16. Barurtan tzeinian, ezitei isar beltzuri, ipokriten bikala, zeinek desfiguratan baitei beren begitartia emoiteko izaguntra gizoner barurtan deila. Egiaz erraiten daizeid errezipitu zeila beren rekompensa.
17. Zuk, berze gisaz, barurtan tziuanian konpoin zazu zore buriua eta ekuz onki zore begitartia.
18. Etzein gizonen izagun barurtan tziuala, beizik kain solo zore Aitak presente baitago gaiza guziuer, orainore altxatrukago daudener; eta zore Aitak ekustan baitu igartan dena sekretuan, emonen daizu korrengatik rekompensa.
19. Nai etzazei bil ontarzun xentako lurrean, non konsumitan baldutu erroñak eta polillak, non eta ladronek deskubritan eta ebasten baiditei.
20. Xunta zezei leinaz bai xentako ontarzun zeurian, non ez baita erroña ez eta polilla konsumi dozkeinik, eztare ladron deskubri eta ebats dozkeinik.
21. Zeren zore tesoreria dagon lekiuan, kan diozu zore biotza.
22. Zore korpizaren argia zore begiak dutzu; zore begia izan baledi senzillo edo egon baledi zain, zore korpiz guziua egonen tzu argitruk.
23. Baya malizioso edo gaxki balimadakazu zore begia, zore korpiz guziua egonen tzu uluntruk. Zeren ulungua balimada zutan, biar diona izan argi; ¡ulungua berak zer andi izanen dra!

24. Nork ere ezdoke zerbutxa bi nausiri; zeren edo ekunen du aburrimentu batari eta amorio berziari, edo sujetatan bada leinari, miraten du zeñurekin bigarnari. Ezdokezei zerbutxa Jaungeikuari eta ontarzuner.
25. Konen arrazoinan erraiten daizeid: ezizteila akongoja zer xan erdeiteko kuidaduaz mantenatako xen bizia; edo nontik erkinen tzein beztido zen korpizaren estaltako. Zer ¿ez dia biziak edo arimak obro balio ezik elimentiuak eta korpizak obro ezik beztiduak?
26. Txezey zeuriko txoriek nola ezdein eritan ez ere egitatan, ez granerorik ere ekutan, eta nola mantenatan tion xen Aitak zeurian dagonak. ¿Etzeia bada xek en beino anitx obro balio konparazionerik bage?
27. Eta ¿Nor xetarik anitx diskurrimenturen indarrez añadi doke kodo bat bere luzeguari?
28. Eta beztiduari dela kaso, ¿zer propositoz xen inkietatia? Txezei alurreko liliak nola anditan dren eta loratan. Ezdezei ek lanuatan, ez urutan ere.
29. Kalarik ere nik erraiten daizeid ez Salomon ere bere andigua guziuaeren erdian beztitu zela kain primorosoki nola lili kuetarik bat.
30. Bada Jangeikuak kola beztitan badu egun alurrian loratan eta biar labiara egotxtan den belar bati ¿zomat obro xer, fede txikitako gizonak?
31. Kola bada eztei fan erranez akongojatruk ¿Non erdinen digu zer xan eta edan? ¿Non zerekin bezti erdenen digu?
32. Egitan dein gisa paganuek, erabiltan baitra ansiarekin gaiza kuen guziuen atzian; bada onki daki xen Aitak etaz nestate tzeina.
33. Azkenik, txerka zazei leinik Jangeikuaren reinua eta bere justizia, eta berze gaiza guziuak emonen dazkizei añadimentuz.
34. Eziztei bada erabil kongojatruk biarko egunaz; zeren biarko egunak aski kuidado eraguen du berarekin, edo berartaz; aski izan dakiola egun bapanari bere afan edo tarea propiua.

*ZAZPIGARNEN KAPITULUA. Akabatan du Jesusek bere sermon admirabilia: albertitan du ez dela projimuaz gaxki pensatu biar; eta mintzatan da ezdrela emon biar indinuer gaiza saintiuak; fabrikatan da orazioniaren eta aren perseberanziaren gainian; karitatiaren gainian; zoin ersi denaz zeuriko bidia; Profeta falsuetaz: frutiuetaz izaguntan dela arbolia; eta etse edo edifizio fundatruk izan denaz peñaren gainian edo anriaren gainian.*

1. Nay etzazei juzga, nai ezbatzei izan juzgatruk.
2. Zeren juzga zinezein juizio berarekin biar tzei izan juzgatruk; eta neurri berarekin izanen zrei xek neurtruk.
3. Baya zu ¿zer begitartereki izartran zra beiratra nata zore anaxaren begian eta etzu quart emoitan biga dagonari ziaurnaren barnian?
4. Edo ¿nola erraiten tzu zore anaxari: eitzazu nik erkin tzadan autzxko kori begitik ziaurek tzularik biga bat ziauren begian?
5. Ipokrita, erkin zazu leinik biga ziauren begitik, eta gunian ekusen tzu nola biar tziuan erkin nata zore anaxaren begitik.

6. Etzazei emon txakurrer gaiza saintiuak, ez ere egotx xaurien perlak txerrier; ez deila izan txiska dizein beren zankuez eta buelta ditian xaurien kontra eta zatizka ztein.
7. Eska zazei eta emonen daizei: txerka zazei, eta erdenen tzei; bortan dei zazei, eta irikiren daizei.
8. Zeren eskatan den orok, errezibitan du; eta txerkatan dionak, erdeitan du; eta deitan dionari irikiren zau.
9. ¿Badagua ote xen artian norbait, zoini eskatan zaularik ogi bere seme batek, emon dazan arri bat?
10. edo eskatan bazau arrain bat, emon dazan xuge bat?
11. Bada xek izaitian gaixto, edo inklinazione gaxtotako, balimadakizei emon gaiza on xaurien semer, ¿zomat obro xen Aita zelestialak emonen du gaiza onak eskatan dazkionari?
12. Eta kola, egin zazei xek berze gizonekin deseatan tzei guziua ek egin tzein xekin; zeren kaur baita legiak eta profetek erran dein suma edo llaburtia.
13. Sar ztei borta ersitik, zeren borta eta bide zabalak dra eramaiten deinak perdizioniarra, eta anitx dra sartan drenak bide kontarik.
14. ¿O zer ersi da borta eta zer mear senda edo bidia eramaitan dionak akaba ezdeiteken biziara! ¿eta zer txiki dra arekin kausitan deinek.
15. Guarda ztei profeta falsuetaz, zoin xiten baitra xengana beztitruk ardi larruz; baya barnetik dra otso deborazale banak.
16. Beren frutu edo obretaz izagunten ditzei, ¿Biltan dreya ote mats arbola ñardunetarik edo figo xargatzetarik?
17. Kola da nola arbole on orok eragutan dion frutu onak, eta arbole gaxto guziuak, frutu gaxtuak.
18. Arbole on batek ezdoke frutu gaxtorik, eztare arbole gaxto batek frutu onik.
19. Arbole oro eragutan ez dionak frutu on, izanen da ebakirik eta suara egotxirik.
20. Beren frutuetaz bada izagun dozkezei.
21. Ez niri erraiten dion orok ¿Oh Jeina, Jeina! sarten da korrengatik zeurietako reinuan; beizik egiten dionak ene Aita zeurian dagonaren borontatia, kori da sarten dena zeurien reinuan.
22. Anitxek erranen daitei juizioko egun kartan: ¿Jeina, Jeina! ¿Ezdigua bada guk profetizatu zore izenian, eta egotxi zore izenian demoniuak, eta egin anitx milagro zore izenian?
23. Baya gunian nik erranen dabeid: sekula ere ezdaizei izaguntu enetako edo ñaurnak: aparta ztei nitarik, gaxtotarzunaren obrazaliak.
24. Korrengatik noraidenek entzuten dion edo kunplitan ene dotrina kuek, izanen da iduri edo semejatruk gizon kuerdo bati zoinek egin baizion bere etsea arrizko, zimentu gainian;
25. eta erori zren euriak, eta ugaltiak erkin zren marginetarik eta erabili zren airiak, eta emon zein indarrekin kalako etsiaren kontra; baya ezen izan deseginik zeren baizagon eginik edo fundatruk arrizko zimentu gainian.
26. Baya nornaidenek entzuten dion eta ez obraz izartan dotrina emoiten tuan kuek, izanen da semejatruk edo iduri gizon ero fabrikatu zion bati bere etsia anria gainian;
27. eta erori zren euriak eta xin zren ugaltetako erriadak, eta erabili zren edo butz egin zein airek, eta emon zein indarrekin etse karen kontra, zoin erori zen, eta aren desegingua izan zen andi.

28. Azkenik akabatu baikoz Jesusek diskurrimentu kaur, entzuten zabein iriek, edo iri entzutan zabeinek, ezein akabatan admiratiaz aren dotrina.
29. Zeren aren er erakustako moidia zen autoritate soberano batekin, eta ez beren eskribainu eta fariseuek erakustan zein gisa.

**ZORTZIGARNEN KAPITULUA.** *Jesusek sontotan du leproso bati, einturiaren mitil zerbutxari, eta San Pedroren amagiarrebari: sosegatan du itxasua zagolarik alborotatruk; eta sontatan tu diabiuz beteak, edo endemoniatuak.*

1. Xatxiz baikoz Jesus menditik, fan zitzaun xarrekituz gente multitud andi bat.
2. Kontan, eltian arengana leproso bat adoratan zaun erraiten: Jeina, zuk nai batzu saisi nindokezu.
3. Eta Jesusek zabaltan edo edatan ziolarik eskiua, tokatu zaun, erraiten: Nai diez: Bara zte xainu. Eta instantian baratu zen sontotruk bere lepratik.
4. Eta Jesusek erran zaun: Tzezu etzazula erran ñorire; baya fanzte presenta zte sazerdotiaren edo apezarengana, eta ofrezu zazu emontarzun Moisesek manatu ziona, zerbutxa edo izan dazaun testimoniotan.
5. Eta sartan zelarik Kafarnaunen erkin zitzaun enkontriuara einturiako ofiziale bat, eta otoi egitan zaun erraiten:
6. Jeina, ene mitil zerbutxari bat dago etzinik etsen, perletikatruk, eta padezitan du anixko.
7. Erraiten du Jesusek: Ni fanen nuzu eta sontoten dauz.
8. Eta replikatu zion einturiako ofizialak: Jina, ni enaz dino edo merexizale ori sar dein ene etsen; baya mana beza orren itzaz eta baraten da ene zerbutxari mitila sontotruk.
9. Bada oraino ñaurek, ez bainaz beizik gizon bat izaririk berzen meniara, nola baitur soldado ene ordeniuara, erraiten dur bati: fan adi, eta ura faiten da; eta berziari: onai, edo xin adi, eta xiten da, eta ene mitil zerbutxari: egin zak kaur eta egiten du.
10. Kaur entzutian Jesusek mostratu zion admirazione andi bat eta erran zion xarrekitan zitzauner: egiaz erraiten daizeid, eztare Isrraelen erdian ere erden duala fede kain andi.
11. Kola nik deklaratan daizeid xinen drela jentiletarik anitx iguzkiaren erkingutik eta sargutik, eta egonen drela mayan Abraan, Isak eta Jakobekin zeurietako reinuan;
12. reinoko semiak (Judiauak) izanen dren bitartio edo tenpra berian egotxirik kanpo ulunguetra: kan izanen da nexarra eta ortzen garraska egitia.
13. Gero erran zion Jesusek einturiako ofizialari: ortzu edo fan zte eta agi dagizula xinetsi tziuan bikala; eta ordu kartan berian baratu zen mitil zerbutxaria.
14. Fan izan zelarik gero Jesusek Pedroren etsera, ekusi zion konen amagiarreba oyan kalenturarekin;
15. eta tokatan zaularik eskiua, gentu zitzaun kalentura; korrekin xagi zen bertan oitik, eta isari zen er zerbutxatra.
16. Arrastria eltu izan baikoz eragu zitzabein anitx espiritiuekin zaudenik, eta bere elia edo itzarekin egotxtan ztion espiritu gaxtuak, eta sontotu ztion kexatan zren guziuak.
17. Kunplitan zelarik korrekin erran ziona antzinetik profeta Isaisek erraiten: Bera kargatu da gore eriguetaz, eta artu du beraren gain gore eriguak.

18. Ekustan zelarik Jesus egun batez gente anitxekin bere unguriuan, disponitu zion igartia Jenezareteko laguaren berze alteko erribrara;
19. eta abañatan zitzaularik eskribainu edo erakuszale bat, erran zaun: Maistrua ni xarrekiten naizu nora naiden fan zitian.
20. Eta Jesusek erresponditu zaun: Axariek dei kamia eta txoriek abia; baya gizonaren semiak ez du zeren gainian erreposa buria.
21. Bere diszipuluetarik berze batek erran zaun: Jina, permeti naztazu lein ezik xarreki daizaizun, fan nein ene Aitaren edo ñore Aitaren onrztra.
22. Baya Jesusek erresponditu zaun: xarreki naizte zu, eta eitzazu ilek, edo gente ez deinek fediarene bizia, onr tzein beren illak.
23. Sartu zen bada barka batian akonpañatruk diszipuluetaz.
24. Eta nonta azkatu zen itxasuan tenpestade bat kain andi, estaltan baizein oladek barka; baya Jesus zagon lo egiten.
25. Eta abañatan zrelarik arengana bere diszipuluak igatzarri zabein erraiten: Jina salba gitzazu, galtruk baigra.
26. Erraiten dabei Jesusek: ¿Zertaz lotsatan zrei, o fede txikitako gizonak? Gunian txuti izaririk manatu zion airer eta itxasoari aplaka litiala eta segitu zen sosegu andi bat.
27. Zointaz aturditruk kan zauden guziuak, erraiten zein alkar: ¿Nor da kaur zoini airek eta itxasuak obedezitan baitabei?
28. Barkotik erkiniz geroz laguaren berze erribran gerasenuen errian, fan zren xuxen arengana erkitian sepultura zaudenatarik bi endemoniatu kain furioso, ez baizen ñorere atrebitan igartra bide kartarik.
29. Eta bertan asi zren irago egiten, erranez: ¿Zer ekusteko digu guk zorekin, o Jesus Jangeikuaren Semia? ¿Xin zreya kona guri atormentatiagatik tenpra bage?
30. Zagon ez urrin kantik txerri saldo andi bat alatan.
31. Eta demoniuek otoi egitan zabein gisa kontan: Egotxtan bagutzu kementik, oil gizazu txerri saldo kortra.
32. Eta ark erran zabein: Ortzei. Eta urak erkin zrelarik, sartu zren txerrietan; eta nonta saldo guziuak laster egin zion furia andirekin brinko edo zauzi egitra turrunpero batarik itxasuara, eta baratu zren itotruk uretan.
33. Txerrizainak ezkapa edo inesitu zren, eta eltu baikoz ziudadiara, kontatu zein agitan zen guziua, eta partikulariki agitiua endemoniatiuekin.
34. Puntu berian ziudade guziua erkin zen Jesusen txerka eta ari ekustian, otoi egin zabein erretira ledin beren erritik.

**BEDRATZUGARNEN KAPITULUA.** *Jesusek konfirmatan du bere dotrina rnilagro berrirekin. Perletikatu baten sontotiuua edo sontotarzuna; San Mateoren bokazionia; libratan du emazte bat odol flujo edo odol usurtiuua batarik; erresutitatan du Jayroren alaba, sontotan tu bi utsi eta endemoniatu mutu bat; Fariseuen blasfemiak.*

1. Eta barkuara igaitian, igari zen lagunaren berze altiara eta xin zen bere egoitiazko ziudadiara edo Kafarnaunena.
2. Noizta presentatu zabein perletikatu bat etzinik oi batian. Eta ekustian Jesusek bere edo aren fedia, erran zaun tullitiuari: Ekun zazu konfianza, ene semia, zeren parkatruk zaitzu zore bekatiuak.



3. Zoini eskribain edo erakuszale banek erran zein bertan berentako: Konek blasfemiatan du.
4. Baya Jesusek ekustian beren pensamentiuak, erran zion: ¿Zeren pensatan tzei gaxki xaurien biotzetan?
5. ¿Zer gaiza da fazilago, erraitia ziauren bekatuak parkatan zaitzu, edo erraitia xagi eta erabil zte?
6. Bada xakin zazein gizonaren Semiak diola lurrian potestade bekatu parkatoko, azka zte edo xagi zte (erran zion tenpra berian perletikatuari), ar zazu ziauren oya eta fan zte zore etsera.
7. Eta xagi zen eta fan bere etsera.
8. Zoin ekustian gentek baratu zren lotsa saintuz beterik; eta emon zein gloria Jangeikuari emon ziolakoz kolako potestade gizoner.
9. Partitu zelarik kementik Jesus, ekusi zion gizon bat xaseririk alkabalen banko edo may batian, izenez zionak Mateo, eta erran zaun: xarreki naztazu; eta ura xagitan zelarik bertan, segitu zitzaun.
10. Eta agitu zen zagolarik Jesus Mateoren etseko mayan, xin zrela anitx publikano eta bizi gaxtotako gente izari baizren mayan bazkaltra arekin eta bere diszipuluekin.
11. Eta ari ekustian Fariseuek erraiten zein bere diszipuluer: ¿Nola da xen Maistruak xatan baitu publikano eta bekatariekin?
12. Baya Jesusek kaur entzutian, erran zabein: ezdutzu sanuak, beizik eri daudenak dotoriaz nestate deinak.
13. Fan ztei bada ikastra zer sinifikatan dion: Obro estimatan dur miserikordia ezik sakrifiziua; zeren bekatariak baitra eta ez justuak zoiner ni xin bainaz deitra penitenzia egitra.
14. Gunian presentatu zren Jesusengana Juanen diszipuluak eta erran zabein: ¿zoin da motibua zeren guk eta fariseuek barurtan digunian naroki, ezbaitey barurtan zore diszipuluek?
15. Erresponditu zabein Jesusek: ¿Esposuaren adexkidiak erabil deiteguya ote aflijitruk edo nexargarri, esposua ekin dagon bitartio? Elten da bay tenpra zointan izanen baizabei gentruk esposua, eta gunian barurten dei.
16. Ñore ere ezdu egoxtan tapallu bat oxal lodiz beztido xar bati; berze gisaz berriguak urratan du xardunaren parte eta andiago egiten da urratiua edo autsduna.
17. Eztare ezdei egoxtan ardaun berria zagi xarretan; zeren kaur egiten bada lertan da zagia eta uxurtan da ardauna, eta galtan da zagiak edo larriuak. Baya ardaun berria egoxtan dei zagi berrietan, eta kola konserbatan da bata eta berzia.
18. Konbersazione kontan zagon eltu zenian gizon prinzipale edo Sinagogako nausi bat, eta adoratan zaularik, erran zaun: Jina, ene alaba akabatan da iltiaz; baya xin zte, izar zazu zore eskiua aren gainian, eta biziren tzu.
19. Xagitian Jesus, faiten zitzaun xarrekituz bere diszipuluekin.
20. Noizta emazte bat baizion amabi urte padezitan ziola odol uxurtiua bat, xin zen atziritik eta tokatu zion aren edo bestiduaren atzekua.
21. Zeren arek erraiten zion berartan: toka al dokedan beraren edo bere beztidua, ekusen naz sentotruk.
22. Baya bueltatian Jesus eta mira egiten zaularik, erran zaun: Alaba, ekun zazu konfianza: zore fediak sontotu daizu.

23. Egiaz, instante kartaz geroztik baratu zen sentotruk emaztia. Xin zelarik Jesus gizon prinzipale karen etsiara, eta ekustian flauta edo lutozko musika sonazaliak, eta gentiaren arroitua, erraiten zion:
24. Retira ztei, ezdago bada ilik aurra edo nexkaxia, beizik loak artruk. Eta artaz burla egiten zein.
25. Baya egotxirik kanpo gentia, sartu zen, eskutik artu zaun, eta nexkaxia azkatu edo txutitu zen.
26. Eta afamatu zen agitiua erri kartaz guziuz.
27. Partitari Jesus leku kartarik segitu zizazkan bi utsi irago egiten eta erraiten: Dabiden semia, ekun zazu konpasiune gutaz.
28. Etsera eltu zen bertan edo baikoz, presentatu zizazkan utsiak eta Jesusek erran zabein: ¿Xinetstan tzeya nik egin dokedala eskatan tzein kori? Eraitan dabei: Bay Jina.
29. Gunion tokatu zazkabein begiak erraiten: nola xen fedia kola eginik izan dakizeila.
30. Eta irikirik izan zitzabein begiak. Baya Jesusek amenazatu ztion, edo desafiatu ztion erraiten: Txezeid, ñork ere etzala xakin.
31. Ek kalarik ere, kantik erkitian publikatu zein unguru edo komarka guzutik.
32. Kuek erkinik, presentatu zabein mutu bat endemoniatruk.
33. Eta egotxirik geroz demoniua, ele erran zion edo mintzatu zen mutiua, eta gentiak bete zren admirazionez eta erraiten zein: sekula ezda ekusi izan kalako gaiza Isrraelen.
34. Fariseuek al rebes edo kontrario altetik, erraiten zein: demoniuen prinzipalaren artez egotxtan tu demoniua.
35. Eta Jesus faiten zen lasterkatan ziudade edo iri guziua edo buelta emoitan ziudade eta iri guzier, erakustan beren sinagogetan eta predikatan Jangeikuaren reinuaren Ebanjeliua, eta sontotan doloretarzun eta erigua ere.
36. Eta ekustian gente kurak, konpadezitan zen etaz, zeren baizauden gaxki paratruk eta barriatruk kemen eta kan, ardiak artzain bage bikala.
37. Zointaz gainian erran zion bere diszipuluer: da egiazki anitx egitatako baya egitariak txiki.
38. Otaoizka ztei edo otoi eska ztei egitarako nausiari oil txala egitari edo egitazale bere alurriara.

**AMARGARNEN KAPITULUA.** *Amabi apostolen misionia; milagro egiteko potestatia, eta Jesusek instrukzione emon zabeinak.*

1. Kontaz gero, deitu ztiolarik bere amabi diszipuluak, emon zabein potestate egotxteko espiritu zikinak, eta sentotako zernaiden gisatako min edo gatxak edo eriguak.
2. Amabien izenak dra kuek: Leina Simon, izengainez Pedro, eta Andres bere anaxa.
3. Santiago, Zebedeoren seme, eta Juan bere anaxa.
4. Felipe eta Bartolome: Tomas eta Mateo publikanua edo arrendazalia; Santiago, Alfeoren seme, eta Tadeo; Simon Kananekoa; eta Judas Iskariote, saltu zitzaun bera.
5. Amabi kuek oiltu ztion Jesusek emoitan zabeilarik segitan dren instrukzioniak edo ikastiak: ez ziztei fan oray jentilen lurriara, ezta eziztey sar samaritanuen irietan;

6. Baya fan ztey lein txerka Isrraeleko etseko ardi galtiuak.
7. Fan eta predika zazei, erraiten abañatutan dela zeurietako reinua.
8. Eta izaguntra emoiteko xen doktrina, sonto zazei eriak, resuzita zazei ilak, xain zazei leprosuak, egotx zazei demoniuak. Emon zazei graziaz, graziaz errezipitu tzeina.
9. Etzazei eraman urrerik, ez zidarrik eta ez deus deuririk xaurien bolsetan edo folletan.
10. Ez alforjarik biajeko ez obro ezik tunika bat eta kalzero eli bat, eztare makila edo berze armarik xaurien defensatako; zeren trabajatan zionak merexi du mantena dazabein.
11. Zointan naiden ziudade edo aldeatan sar zindein, informa ztei nor den artan gizon prestu edo dino errezipi dazaizein ostatuz eta egon ztei bere etsen xen faitiaraino.
12. Etsian sartiari, salutazionia biardu izan: bakia izan deila etse kontan.
13. Zeren etsiak merexitan badu, xinen da xen bakia arengana; baya ez balimadu merexitan, xen bakia utzulen da xauriekin.
14. Nay ez daizeinian errezipitu, ez ere beatu edo entzun xen eliak edo erranak, erkiten zreilarik kolako etse edo ziudadetik, idarraus zazei xaurien zankuetako errautsa.
15. Egiaz erraiten daizeid Sodoma eta Gomorra izanen drela tratatruk rigore txikiagorekin juizioko egunian, ezik kalako ziudadia.
16. Bea ztei nik oiltan daizeila ardi bikala otsuen artian; korrengatik izan biar tzei prudente sugien gisa, eta senzillo urxuen bikala.
17. Baya rekatu edo konturekin bizi ztei kolako gizonekin; bada akusaten ztei tribunaletan, eta azotaten ztei bere sinagogetan;
18. eta ene kausaz izanen zrei eramanik gobernazalien eta erregen antziniara, testimonio emoiteko edo emon zazein nitaz er eta nazioner.
19. Konparezituraz zintzeinian ere, ez dazaizeila emon kuidadorik nola erran biar tzein, zeren emonik izanen baizaizei ordu kartan berian erran biar zeina.
20. yaketa ez baizrei xek aipatan diona edo mintzatan dena gunian beizik xen Aitaren Espiritiua, zoin mintzatan baita xengatik edo xen lekiuan.
21. Gunian anaxe batek entregaten du bere anaxa muertiara edo ilik izaitra, eta aitak semiari: eta semiak azkaten dra aiten kontra eta ilarazen tei.
22. eta xek xinen zrei edo elten zrei izaitra odiatruk edo uguntruk guziueganik ene izenaren kausaz; baya perseberatan dena azken ordiuarartio, kaur salbaten da.
23. Guniara bitartio persegitan daizeinian ziudade batian ezkapa ztei berziara. Egiaz erraiten daizeid etzeila akabaten konbertiaz Isrraeleko ziudadiak lein ezik xin dein gizonaren Semia.
24. Ezda diszipulua obro ezik bere maistrua, ez ere zerbutxaria obrotako ezik bere nausia.
25. Aski dakiola diszipuluari izaitia tratatruk bere maistruaren gisa, eta zerbutxariari bere nausiaren bikala. Etseko Aitari deitu balimadei izenez Beelzebub, ¿zomat obro bere menorer?
26. Baya korrengatik ezdazazei ekun lotsa, zeren deusere ez baitago estaltruk, deskubritruk edo agertruk ezbiar dionik izan, ez ere altxatruk xakinik izan ez biar dionik.
27. Erraiten daizeidana gayaz, erran zazei egunaren argiara; eta erraiten daizeidana biarriara, predika zazei tejado gainetik, edo lurrezko sabayetarik.

28. Deus lotsarik etzazei ekun korpizaren ilzaler, eta arima il ezdokeiner; leinaz onki lotsa ekun zazei egotx dokenari arima eta korpiza iburniara.
29. ¿Ez dia kola bi txori saltan drela bi marabiditan, eta kalarik ere etarik baktotxa ezdela eroren lurriara disponitan eztion bitartio xen Aitak?
30. Xaurien buruko biluak ere daude guziuak kontatruk;
31. Etzei bada zertaz lotsa ekun; balio tzei xek txori anitxek beino obro.
32. En suma (sic): rekonozi eta konfesatan neiner oro Mesiatako gizonen antzinian, nik ere izagunten daud eta deklaraten naz edo izaguntra emonen naz aren alte ene Aita zeurietan dagonaren antzinian,
33. baya ukatan nindionari gizonen antzinian, nik ere ukaten daud ene Aita zeurian dagonaren antzinian.
34. Etzei zer pensa ni xin nintzala, bakiaren eragutra lurriara: ez naz xin bakiaren eragutra, beizik gerra;
35. bada xin naz berextra semia bere aitarenganik, eta alaba bere amarenganik eta errena bere amagiarrebaganik;
36. eta gizonaren enemiguak izan dra bere etse berbereko personak.
37. Amatan dionak aitari edo amari niri beino obro, ezdu merexi izan enia; eta amatan dionak semiari edo alabari niri beino obro, eztare ezdu merexi izan enia.
38. Eta ezdena kargatan bere krutxiareki eta niri xarrekitan, ezda dino nitaz.
39. Bere arimaren kostuz konserbatan dionak bere bizia, galten du; eta gal lezanak bere bizia ene amorioz, bueltaten da erdeitra.
40. Xer errezibitan dionak, niri errezibitan du; eta niri errezibitan dionak, errezibitan du niri oiltu nindion berari.
41. Errezibitan dionak ostatz profeta bati, profeta dalako atenzionez, errezibiten du profetaren premia; eta ostatz artan dionak justo bati, justo delakoz, ekunen du justuaren saria edo rekompensa.
42. eta nor naidenek emon lezan edatra txikerxko kuetarik bati ez beizik baso bat ur otz ene diszipulo delakoz errazoinan emoiten daidzeid ñore itza ezdiola galten bere pakiua.

*AMEKAGARNEN KAPITULUA. Juan Bautistak oiltan du bere diszipuluetarik bi Jesusengana: okasione konekin eman zionaz Jesusek Juanen gainian bere entzunzaler; zitudade inkreduluak; Jeinarene karga da suabe edo arin.*

1. Nola Jesusek akabatu baizion emoitiaz erakustia kuek bere amabi diszipuluer, partitu zen kantik erakuts eta predikatako beren zitudadetan.
2. Baya Juanek entzun nola baizion prisionian Kristoren obra marabillosuak, oiltu zion bere diszipuluetarik bi ari galtegitra.
3. ¿zu zreya Mesias xin biar diona, edo berze bat esperatu biar digu?
4. Zoini Jesusek erresponditu zabein: fan eta konta zazei Juani entzun tzeina eta ekusi tzeina.
5. Utsiek ekustan dei, mankiuak erabiltan dra, leprosuak edo lepradunak baratan dra xain, sordunek entzuten dei, ilak erresuzitatan dra, Ebanjeliuaren berri ona emoiten da pobrer.
6. eta bienabenturatu artan ezdionak eneganik eskandalozko okasionerik.

7. Kuek fan baikoz, asi zen Jesus mintzatan Juantaz, eta erran zion iriari: ¿Zer ekustra erkin zrei desiertoan? ¿Kaña aire guziuetra mobitan den zomait?
8. Berzala erran daztazeid, ¿Zer ekustra erkin zintzein? ¿Gizon bati beztitruk arropa delikatu banekin? Badakizei kola beztitan drenak, daudela erregen palaziuetan.
9. Azkenian: ¿Zer erkin zrei ekustra? ¿Zomait profeta? Kori bay, nik aseguratzen daizeid, eta orainore anitx obro ezik Profeta.
10. Bada ura da nortaz ekribitruk baitago: Mira edo beira zazu nik oiltan duala ene ainguriua zore presenziaren antziniara, zoin fanen baita zore antzinetik disponitan daizularik bidia.
11. Egiaz erraiten daizeid emazten semien artian ezdela sortu bakotxik Juan Bautista beino andiago: aren beino andiago izanik ere, txikerrago dena zeurien reinuan.
12. Eta Juan Bautistaren tenpratik presentiaraino, zeurien reinua alkanzatan da indar biziz, eta indar bizi kaur egiten deinek bapanak berarekin dra arrapatan deinak.
13. Zeren Profeta guziuek eta Legiak Juantradraino erran zein antzinetik gero agitu biar ziona.
14. Eta entelegatu nay batzei, ura bera da Elias xin biar zion kura.
15. Biarri dionak entelegatako entelega tzala.
16. Baya ¿nori konparaten dur nik gizaki kasta kaur? Da asemejatruk morroin plaztan xaseririk daudener, zeinek irago egitiari beren lagunetarik berze zomaiti, erraiten dabei:
17. Kantatu daiguzei kantxoin alegre, eta ezrei lantzatu; kantxoin triste eta etzei nexar egin.
18. Kala da xin baizen Juan kuasik ez baitu xaten ez ere edaten eta erraiten dei: poseitruk dago demoniuataz.
19. Xin da gizonaren Semia xaten eta edaten baitu, eta erraiten dei: ona kemen goloso bat eta abinatu bat, publikanuen eta bizi gaixtotako genten adexkide. Baya sabiduria dibinua baratan da justifikatruk bere sementako.
20. Gunian asi zen rekonbenitan zitudier zoinetan egin baizren milagruetarik anitx, zeren ezbaizein egin penitentzia.
21. ¡Ay zutaz, Korozain! ¡Ay zutaz Betzaida! Zeren Tiron eta Sidonen egin balidra milagro xetan egin drenak, aspaldian eginik ekunen zeila penitentzia estaltruk autsez eta zilizioz.
22. Korreatatik erraiten daizeid Tiro eta Sidon izanen drela tratatruk juizioko egunian rigore txikiagorekin ezik xek.
23. Eta zu, Kafarnaun ¿naskiro pensatan tzu biar tziuala igan zeuriarartio? Izanen zra, bai, abatitruk iburniaraino; zeren Sodomian egin balidra milagro zutan egin drenak, Sodoma eltu bada irain zaitekian orainore egunko egunian.
24. Zerengatik erraiten daizud, Sodomako erria juizioko egunian izanen dela gatzigatruk zu beino rigore txikiagorekin.
25. Kalako tenpran klamatu zion Jesusek eraiten: Nik glorifikatan daizud, ene Aita, zeuri ta lurreko Jeina, zeren ekun baidutzu estaltruk edo altxatruk gaiza kuek sigloko sabiuer ta prudenter eta rebelatu baidutzu txikerreker.
26. Bay, ene Aita, alabatruk izan ztiala, izan dalakoz zore agradoz kola izan ledin.
27. Gaiza guziuak izari dutu ene Aitak ñore eskiuetan. Baya ñork ere ezdu izaguntan Semia beizik Aitak. eta ñork ere ezdu izaguntan Aita, beizik Semiak, eta kark zoini Semiak nay ekuntu al dion rebelatu.

28. Xin ztei enegana erabiltan zrein guziuak agobiatruk trabaju eta kargekin zeren nik alibiaten baizteid.
29. Ar zazei ene karga xaurien gainian eta ikas zazei nitaz edo eneganik rnansu eta umilde nazala biotzez; eta erdenen tzei erreposiua edo sosegiua xaurien arimentako.
30. Zeren suabe baita ene karga, eta arin ene peziua.

*AMABIGARNEN KAPITULUA. Defenditan tu Jesukristok bere diszipuluak farisenen murmurazionetik neskaneguna guardatiaren motiboz. Sontotan du eskiua idortruk edo exartruk zakan bati, eta endemoniatu eta utsi bati. Mintzatan da Espiritu Saintiuaren kontra den bekatiuaz. Jonasen milagrua. Ninibitak. Eguerdi alteko Erreina.*

1. Tenpra kontan berian, igartan zelarik Jesus neskanegun batez alor erin altaka banetarik, bere diszipuluak, zeilarik gose, asi zren buruka biltan, eta granuen xaten.
2. Eta kaur ekustian fariseuek, erran zabein: beira zazu zore diszipuluek egitan deila ezdena edo eztena lizito egitia neskanegunian.
3. Baya ark edo arek erresponditu zabein: Etzeya leitu Dabidek egin ziona, bera eta laguntan zabeinak ekusi zrenian gosiaz obligatruk?
4. ¿Nola sartu zen Jangeikuaren etsian eta xan zion proposizionezko ogiak, lizito ezena xatia ez ari ez aren laguner, beizi kain solo Sazerdoter?
5. ¿Edo etzei leitu legian nola sazerdotek trabajaban dein elizan neskanegunian eta kalarik ere ez bekaturik egiten?
6. Bada nik erraiten daizeid, kemen dagola bat eliza beino andiago baita.
7. Zeren xek onki xakin bazinezei zer nai dion erran: Nayago dur miserikordia bino sakrifiziua; sekula ezinein kondenaten inocenter.
8. Zeren gizonaren Semia dueño baita neskanegunaz ere.
9. Partitu zelarik kantik, sartu zen en Sinagogan;
10. Zointan zegon gizon bat baizakan esku bat exartruk; eta galte egin zabein Jesusi erdeiteko motibo ari akusatako, ¿Lizito zenez sontotia neskanegunian?
11. Baya ark erran zabein ¿zer gizon izanen da xen artian zoinek ekutian ardi bat, eta erortan bada kaur zilo batian neskanegunian, etzan azka eta erkin kanpo?
12. Bada ¿zomait obro balio du gizon batek ezik ardi batek? Kola bada lizito da onki egitia xey egunian.
13. Gunian erran zaun gizonari: Luza zazu esku kori.
14. Estiratu zion, eta baratu zen kain sano nola berzia. Baya fariseuak erkitian, xuntatu zren makinatako aren kontra eta galarazteko.
15. Baya Jesus izaguntian kaur erretiratu zen eta eri anitx xarrekitu zitzazkaun, eta er oro sontotu ztion.
16. Enkargatan zabeilarik fuerteki ezlezabeila deskubri.
17. Konekin kunplitu zen Isaiasen profezia, zoinek erraiten baitu:
18. Txezei kor ene zerbutxaria zoini nik baitakad eskojitruk, ene moitia, zointan ene arima konplazitu baita osoki. Izaren dur aren gain ene Espiritiua, eta anunziaten du justizia nazioner.
19. Ezda porfiaten ñorekin ere; ezdu iragorik eginen; ez ñork ere ezdu entzunen aren mintzua edo irago egitia plaztetan;

20. Ezdu zatikaten kaña autsirik dagona, eztare akabaten iltiaz argi oraino keitan dagona; triunfaraztan dion bitartio beraren kausaren justizia;
21. eta bere izenian izaren dei nazionek beren esperanza.
22. Izan zaun tenpra berian eragurik endemoniatu bat utsi eta mutu, eta sontotu zion, kalako gisan asi baizen gunian bertan ele erraiten eta ekustan.
23. Zoinekin iri guziua baratu zen arritruk, eta erraiten zion: ¿Kaur dia ote Dabiden Semia Mesiasa?
24. Baya fariseuek kaur entzutian erraiten zein: konek eztu egoixtan demoniuk baizik Belzebuben obraz, zoin baita demoniuen prinzipala.
25. Gunian Jesusek, izaguntan ziolarik en pensamentiuak, erran zabein: Reino berexirik dauden oro partido kontrariotan, izanen dra desolatruk; eta zoin naiden ziudade edo etse berexirik pensa moldetan ezdu irainen.
26. Eta Satanasek egoixtan badu kanpo Satanasi da berarekin kontrario ¿nola bada biar du irain bere reinua?
27. Zeren nik egotxtan baitud demoniuk Belzebuben izenian, ¿xen semek zer izentan egotxen tey? Korrengatik koriek berak izanen dra xen juezak edo juzgazaliak.
28. Zeren nik egoixtan batud demoniuk Jangeikuaren Espiritiuaren birtutez, segitan da ziertoki Jangeikuaren Reinua edo Mesiasa eltu dela xengana.
29. Berzala erran daztazeid: ¿nola da posible norbait sar dein gizon balore anditako etsian eta ebats dazan bere ontarzunak, ezbadu leinik onki lotan balientiari? Gunian al ekunen dau etsia sakia.
30. Ezdagona ene fabore, dago ene kontra; eta ezdionak enekin biltan, barriatan du.
31. Korrengatik deklaratan daizeid, zernaidden bekatu eta zernaidden blasfemia parkaten zabeila gizoner; baya blasfemia Jangeikuaren Espiritiuaren kontra, ezdela parkaten kain fazilki.
32. Gisa berian nornaiddeni mintza ledinari gizonaren Semiaren kontra parkaten zau; baya mintza ledinari Espiritu Saintiuaren kontra, despreziation aren grazia ezdazan parkaten ez bizi kontan et ez berzian.
33. Edo bada erran zazei arbolia dela on eta on aren frutiua; edo arbolia balimadakazei gaixtotako, ekun zazei ere gaixtotako aren frutiua, yaketa frutiuz izaguntan baita arboliaren kalidadia.
34. ¡O biborazko kasta! ¿nola da posible xek aipa zazei gaiza onik, izaitian, zrein gisa, gaxto? yaketa mintzatan baita aua biotzaren abundatarzuketik?
35. Gizon prestiuak erkitan tu gaiza onak bere biotzaren ondo onetik, eta gizon gaxtuak bere entraña gaxtotik erkitan tu gaiza gaxtuak.
36. Nik erraiten daizeid, orainore ele aurez zernaidden erran lezeinetaz gizonek biar dela emon juizioko egunian.
37. Zeren zore elengatik biar ekunen tzu izan justifikatruk, eta zore elengatik kondenatruk.
38. Gunian eskribain eta fariseuetarik zomait mintzatu zitzazkabein erraiten: Maistrua, ekun nai ginokezu egin zinezan zomait milagro.
39. Baya arek erresponditu zabein: raza gaixto eta korronpitu konek eskatan du prodijio bat; baya ezau emonen eskatan dena, baizik Jonas profetaren prodijiu.
40. Zeren Jonas egon zen bikala ballenaren entrañan irur egun eta irur gai kola gizonaren Semia egonen da irur egun eta irur gai lurraren entrañan.
41. Ninibeko naturalak azkaten dra juizioko egunian gizaki kasta konen kontra, eta kondenaten dabei: zeren ek egin baizein penitenzia entzutian Jonasen predikazionia.

42. Eta konen guziuareki kemen dagona da Jonases beino obro edo obrotako. Eguerdi alteko erreina eginen da akusazalia juizioko egunian gizontarzun kasta konen kontra, eta kondenaten dau: Zerengatik xin baizen lurraren bazterretarik entzutako Salomonen sabiduria. Eta konen guziuz kemen tzei Salomon beino obro dena, edo obrotako dena.
43. Erkin denian Espiritu zikina zomait gizontarik, erabilten da kaukemenka leku idorretaz txerkatan non egin asiento konsegitu bagetarik.
44. Gunian erraiten du: bueltaten naz ñore etse erkin nazaniara; eta bueltatian artra, erdeiten du desokupatruk, onki egortruk eta alajatruk.
45. Konekin faiten da eta artan du berarekin berze zazpi espiritu beraren beino gaxtuago, eta sartian, kan egiten dei mansione. Zoinekin gizon karen izan moldia, xiten da izaitra lastimosuago ezik leina. Kola agitu biar du gente kasta kain perberso koni.
46. Orainore zagon ura platikatan iriari nonta zauden kanpo bere ama eta bere anaxak nai zabeilarik ele erran.
47. Zoinengatik batek erran zaun: Txezu, zore ama eta zore anaxak daudezu kor kanpo zutaz galtegiten.
48. Baya ark erresponditian erraiten zaunari, replikatu zaun: ¿Nor da ene ama, eta zoin dra ene anaxak?
49. Eta señalatan ztiolarik eskiuz bere diszipuluak, kuek, erran zion, dra ene ama eta ene anaxak.
50. Zeren nornaidenek egin lezan ene Zeurian dagon Aitaren borontatia, kaur da ene anaxa, eta ene arreba, eta ene ama.

*AMAIROGARNEN KAPITULUA. Predikatan du Jesusek parabolatan, eta desestaltan edo deskubritan dazkabei apostoler: erinzaliaren parabolak, mostazaren granuarna, orantzarna, tesoro altxatiuarna, perla preziosuarna, errede arrantzuz betiarna. Profeta onrerik bage bere errian.*

1. Egun kartan, erkitian Jesus etsetik zagon xaseririk itxaso bazterrian.
2. Eta xuntatu zen aren unguiruan gente konkurso bat kain andi izan baizitzaun preziso sartia barka batian eta artia asiento artan; eta iri guziua zagon erribran.
3. Zoini mintzatu zen anitx gaizataz parabolen medioz erraiten: Erkin zen bein kolako erinzale bat eritra;
4. eta granua zomait erori zren bidiari abaño edo bidiaren altakara; eta xin zren zeuriko txoriak eta xan ztein.
5. Berze banak erori zren arridoyetan, nonta baizegon lur txiki, eta bertan bunatu zren, lurra arin zegolako.
6. Baya iguzkia erkitiari, erre eta exartu zren, zeren kasi ezbaizein izorrorik.
7. Berze grano banak erori zren xats artetan, eta anditu zren xatsak eta sofokatu ztein.
8. Berze banak azkenik erori zren lur onian, eta emon zein frutu, non batarik ein, non irorogei eta non ogeitamar.
9. Biarri dionakentelegatako, entelega tzala.
10. Abañatan zrelarik gero bere diszipuluak, galtegiten zabein: ¿Zerengatik mintzatan dauzei parabolatan?



11. Zoinek erresponditu zabein: Zeren xer emon baizaizeid pribilejiua zeuriko reinuaren misteriuak izaguntako; bayaerez zitzabei emon.
12. Zierto izaitian, dionari biar dion guzia emonen zaula orainore obro, eta egonen dela sobratruk: baya ez dionari biar diona ekun genten zaula diona ere.
13. Korrengatik mintzatu zitzabein parabolarekin zeren ek ekustan deilarik ezbaitei beiratan, ezbaitei konsideratan; eta entzutian ezbaitei beatan eztare entelegatan.
14. Zoinekin xiten da kunplitra etan Isaiasen profezia, erraiten baitu: Entzunen tzei xaurien biarrekin, eta etzei entelegaten; eta obrago ekusirik ere xaurien begiekin, etzei beiraten.
15. Zeren gogortu baitu iri konek bere biotza, eta zerratu bere biarriak, eta estali bere begiak etzan ekus berekin ez entzun biarriekin, ez ere entelegsa biotzarekin, lotsaz konbertitian, nik emon daudazan osagarria.
16. Ditxoso xen begiak ekusten baitei, eta ditxoso xen biarriak entzuten baitei.
17. Bada egiaz erraiten daizeid profeta eta justo anitxek ekun zeila ansia ekustako xek ekustan tzeina eta ez zein ekusi; eta entzutako xek entzutan tzeina, eta ezein entzun.
18. Entzun zazei orai erinzaliaren parabola.
19. Nornaidenek entzun tzan Jangeikuaren reinuaren edo Ebanjelioaren elia, eta ez izartan artan bere atenzionia, xiten da espiritu gaxtua, eta arrapatan dau erinik izan zen kura bere biotzian: kaur da erinik izana bidiari xunto.
20. Erinik izan zena lur arridoan da entzuten dion kura Jangeikuaren mintzua eta presentian errezibitan gozorekin.
21. Baya ez du barnetik izorrerik, baizik iraitan du txiki; eta xarrekitian tribulazionia eta persekuzionia itzaren edo Ebanjeliuaren kausaz, bertan konek zerbutxatan dau eskandaloz.
22. Erintziua xats artetan da entzuten diona Jangeikuaren elia, baya siglo kontako kuidaduek eta abratstarzunen engañuak sofokatan dei eta baratan da fruturik emon bage.
23. Alrrebeski, erin tzua lur onian da entzuten diona eta meditatat Jangeikuaren mintzua eta produzitan du frutu, batarik ein, parte irorogei, eta parte ogeitamar.
24. Berze parabola bat proponitu zabein, erraiten: Zeurien reinua da urdutrak gizon erin zion bati azi ona bere alurrian.
25. Baya gizonak lo zaudelarik, xin zen aren enemigo bat eta erin zion zizaña gariaren erdian, eta fan zen.
26. Zagolarik xa garia lastotan eta buruka erkin puntuan deskubritu zen gisa berian, edo agerriara erkin zen xatsa.
27. Gunian etseko nausiaren mitilak edo zerbutxariak xin zeren arengana, eta erran zabein: Jeina, ¿Etzuniona erin azi ona zore alurrian? ¿Nola du bada xats?
28. Erresponditu zabein: zomait gaxki nai nionek erin al du.
29. Replikatu zein zerbutxariek: ¿nai tziua fan gitian xorratra edo aren biltra? Zoini erresponditu zion: ez, agi ezdein arrankatian xatsa, arranka zazein arekin xunto garia.
30. Eitz zazei andi tiala bata eta berzia egitara bitartio, zeren egitatak tenpran nik erranen dur egitarier; bil zazei leinik xatsa, eta artaz egin zazei espal suarentako, eta sar zazei gero garia ene graneruan.
31. Propositu zabein berze parabola bat erraiten: Zeurien reinua da semejatruk mostazazko grano bati zointa artu baizion bere eskiuan gizon batek, eta erin zion bere alurrian.

32. Zoin da ekustiari anixko xne azi guziuen artian; baya anditian xiten da izaitra andiago ezik eltzari guziuak eta egiten da arbole; kolako gisaz zeuriko abiak edo txoriak xasten baitra eta erreposatan bere adarretan.
33. Eta añaditu zion bere parabola kaur: zeurien reinua da semejatruk orantz artu zionari emazte batek eta nastekatu iror almute irinekin nasia baratu zen bitartio orantzatruk edo etsitruk.
34. Gaiza kuek guziuak erran ztion Jesusek iriari parabolatan, zoinak bage ezabein predikatan.
35. Kunplitan kolarik Profetak erran ziona: Iriken dur ñore aua mintzatako parbolekin: publikaten dur gaiza misterioso egon drenak altxatruk mundiua kriatruk izanez geroz.
36. Gunian Jesus, despedituz geroz entzuten zaudenak, utzuli zen etsera eta isaririk aren unguriuan bere diszipuluak, erran zabein: esplika dazaguzu alurrian zizaña erinik izan denaren parabola:
37. Zoinek erresponditu zabein: Eriten diona azi ona da gizonaren Semia.
38. alurra da mundiua; azi ona da reinuaren Semiak; zizaña dra espirtu malignuaren semiak.
39. Enemigo erin zionak da diabiua; egita da mundiuaaren akabantxa; egitariak edo egitazaliak dra ainguriuak.
40. Eta zizaña biltan den gisa eta suan erretan, kola agiten da mundiuaaren akabantxan.
41. Gizonaren Semiak oilten tu bere ainguriuak eta genten dei bere reinotik eskandaloso guziuak eta bekatiuaren obrazale dien oro.
42. eta egotxen tei suaren labiara: kan izanen da nexar eta ortzez garraska egitia.
43. Tenpra berian justuek resplandeziten dei iguzkiaren gisa beren Aitaren reinuan. Biarri dionak entelegatako, entelega tzala.
44. Semejatruk da ere zeurien reinua alurrian altxatruk dagon tesoro bati, zoin erdeiten badu gizon batek, estaltan du berriz, eta gogo edo gozoz beterik erden dionaz, faiten da eta saltan du dakan guziua eta erostan du alur kura.
45. Zeurien reinua da gisa berian semejatruk merkatari tratatan dion bati perla finatan;
46. eta eltan zaularik eskiuetra anitx baliotako bat faiten da eta saltan du guziua, eta perla erostan du.
47. Baitare semejatruk da zeurien reinua errede egorzale bati, zoin egotxerik itxasoan biltan tu kasta guzutako arrantziuak.
48. Zoin beterik egoitian, erkitan dei arrantzariak, eta xaseririk itxaso bazterrian faiten dra berexiz on drenak eta sartan tei bere zaretan eta egotxtan tei kalidade gaxtotakuak.
49. Kola agiten da sigloaren akabantxan: erkinen dra ainguriuak eta berexen tei gaxtuak justuen artetik.
50. eta arrojaten tei sutan dagon labiara. Kan izanen da nexarra eta ortzen garraska.
51. ¿Entelegatu tzeya onki gaiza kuek oro? Bai, Jina, erresponditu zabein.
52. Eta arek añaditu zion: Korrengatik eskribain edo erakuszale oro instruitruk zeurien reinek gaizetan, urdu du familiatzko aita faiten den bati erkinez bere probisionetik gaiza berriak eta zarrak edo aspaldikuak, konbeni den gisa.
53. Akabatu zion baikoz Jesusek parabola edo konparazione kuek, partitu zen kantik.

54. eta igartian bere erriara, izari zen erakustra bere sortuerriko sinagoguetan; kalako gisan ezbaizen akabatan marabillatiaz, eta erraitan zein alkar:
55. ¿Nontik xin zaun koni kalako sabiduria eta milagro kalakuak? ¿Ez dia, naskiro, artesano edo zurginaren semia? Bere ama ez dia izena diona Maria? ¿Ez dreya bere kosino propiuak Santiago, Jose, Simon eta Judas?
56. ¿Eta bere kuxanla propiuak ez dreya bizi guziuak giauren artian? Bada, ¿nontik xinen zau koni gaiza kuek oro? Eta zauden eskandalizatruk gisa artaz.
57. Baya Jesusek erran zabein: Ez dago profetarik onrerik bage, ez bada bere errian eta bere etse propiuan.
58. Konsekuenziatan egin zion kemen milagro txiki beren ez xinestiagatik.

*AMALAURGARNEN KAPITULUA. Juan Bautistaren muertia: borz ogiren milagrua: Jesus erabiltan da eta egitan du erabil dein San Pedro ur oladen gainian; eta sontotan tu eri presentatan zazkan guziuak edo aren beztidua tokatan dein guzier.*

1. Tenpra kartan Herodes tetrarkak, entzun zion erraitan zena publikoki Jesusez, eta erran zion bere kortesanuer:
2. kaur da Juan deitan deina Bautista, erresuzitatu dena ilen artetik; eta korrengatik resplandezitan du artan kainbat milagro egiteko birtutia.
3. Xakitia da, Herodesek preso egin ziola Juani eta lotruk kadenekin sartu ziola karzelian, Herodias, bere anaxaren emaziaren kausaz;
4. Zeren Juanek erraiten baizaun: ezaizu lizito erokitia emaztetako,
5. Eta Herodesek onki nai zion ilarazi, baya ezen atrebitan iriaren lotsaz; zeren guziuek baizakein Juani profetatako.
6. Baya Herodesen urtebetiaren fiestan, erkin zen lantzatra Herodiasen alaba kortesanuen erdian;
7. eta kainbat gustatu zizaun edo kain onki urdutu zizaun Herodesi, prometitu baizaun juramentorekin emonen zaula zernaiden gaiza eska likion.
8. Konekin ark, adbertritruk antzinetik bere amaganik, emon daiztazud kemen, erran zion, fuente edo plater batian Juan Bautistaren buriua.
9. Tristuriaz bete zen erregia. Kalarik ere juramentuaren eta konbitatiuen atenzionez manatu zion emon lezabeila.
10. Eta kala oiltu zion degolla lezein Juani karzelian.
11. Deus berantu bage izan zen eragurik aren buriua fuente batian, eta emonik nextaxiari, zoinek presentatu baizion bere amari.
12. Akuditu edo eltu zren gero bere diszipuluak korpizaren biltra, eta onr zizein, eta fan zren notiziaren emoitra Jesusi.
13. Jesus bada entzun nola baizion Herodesek artaz erraitan zion kura erretiratu zen kantik itxasoz leku desierto iriz kanpo batra. Baya kaur ekustian gentek, erkin zren beren ziudadetarik, xarrekitan zazkaularik oinez lurraz.
14. Eta Jesus erkitian barkotik, ekustian kainbat gentetarzun, mobitu zen lastimaz, eta sontotu ztion beren eriak.
15. Arrastriaren erortiar bere diszipuluak eltu zitzazkaun erraiten: Lekiu da desierto, eta ordiua xa igaririk: oil ditzazu gente koriek fan ditian irietra erostra zer xan.
16. Baya Jesusek erran zabein: Ezdezei falteko nestaterik emon dazauzei xek xatra edo zer xan.

17. Zoini ek erresponditu zein: ez diguzu kemen beizik borz ogi eta bi arrain<sub>u</sub> edo arrantzu.
18. Erran zabein ark: Eragu daztazeid kona.
19. Eta manatu baikoz xaser litian guziuak belarraren gainian, artu ztion borz ogiak eta bi arraniak, eta azkatan ztiolarik begiak zeuriara benedikatu eta partitu ztion; eta emon ztion ogiak diszipuluer, eta diszipuluek gentiari.
20. Eta guziuek xan zein eta ase zren edo aspertu zren eta sobratu zenetik biltu zein amabi zare beterik puzkaz.
21. Xan zeinen doitarzuna izan zen gizonezko borz milla, kontatu bage emazteak eta aurrak.
22. Bertan gero Jesusek obligatu ztion diszipuluak enbarkatra, eta faitra aren esperatra lagunaren berze altian, despeditan ztion bitartio iriak.
23. Eta despeditruk izanik kuek, igan zen bera orazione egitra mendi batian; eta sartruk izanik gaya baratu zen kan bera solo.
24. Bitartio edo arte kartan barkua zagon itxasuaren erdian, batitruk fuerteki oladenganik, ziolakoz airia kontrario.
25. izaitian xa gayazko laurgarnen bijilia, xin zen Jesus engana edo en begitarte, erabiliz itxasuaren gainetik.
26. Eta ekustian diszipuluek erabiltan edo egartan zela itxasuaren gain, turbatu zren eta erran zein: fantasma bat da; eta lotsaz beterik asi zren irago egiten. Instantian Jesus mintzatu zazkabein erraiten: ar zazei animo ni naz: etzazei ekun lotsarik.
28. Eta Pedrok erresponditu zion: Jeina, zu bazra, mana daztazu fan nein zoregana uren gainetik.
29. Eta ark erran zaun: xin zte. Eta Pedro xaistian barkatik, faiten zen erabiltan uraren gain eltako Jesusengana.
30. Baya ekustian airiaren indarra, lotsatu zen; eta astan zelarik bertan unditan, irago egin zion erraiten: Jeina, salba nazazu.
31. Instantian Jesusek luzatian eskiua, artu zion besotik, eta erran zaun: fede txikitako gizona, ¿zerengatik turbatu zra?
32. Eta barkuara igan izan zren sarri, sosegatu zen airia.
33. Baya barnian zaudenak, abañatu zren arengana eta adoratu zabein, erraiten: Egiazki zu zra Jangeikuaren Semia.
34. Igari zeilarik bertan laguna, eltu zren Jenesareteko lurriara.
35. Eta izaguntu nola baizen kan bizi zrenek, bertan oiltu zein abiso erri kartaz guzutik, eta eragu zabein eri zauden guziuak. Eta eskatan zabein graziaz tokatia kain solo bere beztiduaren atzekua.
36. Eta tokatu zein orok baratu zren sontotruk.

*AMABORZGARNEN KAPITULUA. Kondenatan tu Jesusek genteen tradizioiak, opuesto drenak Jangeikuaren mandamentiuer. Sontatan du Kananearen alaba, zoinek emoitan baitu fede andi baten demonstrazione; eta emoiten da xatra desiertuan doitarzun andi bati zazpi ogirekin eta zomait arrainekin edo arrantzurekin.*

1. Okasione kontan zomait eskribain<sub>u</sub> eta fariseok eltu izan baizren Jerusalemetik, erran zabein:

2. ¿Zer motiboz zore diszipuluek kebrantatan tei zarren tradizioiak, ez ekuztian eskiuak xaten deinian edo bazkaltan deinian?
3. Eta ark erresponditu zabein: ¿Eta zeren xauriek desobeditan tzei Jangeikuaren mandamentiua xarrekitiagatik xen tradizioia?
4. Bada Jangeikuak daka erranik: onra zazu aitari eta amari; eta baitare: Maradika lezanak aita edo amari, izan deila kondenatruk iltra.
5. Baya xek erraiten tzei: Nornaidenek erran lezan aitari edo amari: oberta nik ñore partez ofreziz nezana izanen da zore probetxutan,
6. xa ezdu obligazionerik onrratako edo asetitako bere aitari edo bere amari. Zoinekin egotzi tzei lurretik Jangeikuaren mandamentiua xaurien tradizioiagatik.
7. ¡Hipokritak! Arrazonekin profetizatu zion xetaz Isaiasek, erraiten:
8. Iri konek onrratan nu ezpaineekin baya bere biotza dago urrin eneganik edo nitarik.
9. Banoki edo aurerki onrratan nei erakustan dotrina eta mandamentu gizonenak.
10. Eta deitu ziolarik arengana iria, erran zabein: entzun nazazei, eta entelega zazei onki kaur:
11. Ez autik sartan dena, da zikintan diona gizona; beizik autik erkitan dena da zikintan dauna.
12. Gunian arrimatan zrelarik obro bere diszipuluak, erran zabein: ¿Ez dakiziu fariseuak eskandalizatu drela kontaz akabatu dein entzutiaz?
13. Baya Jesusek erresponditu zion: Planta ene Aita zelestialak plantatu ez dion oro, arrankatruk izanen da izarrotik.
14. Eitz ditzazei: urak dra utsi banak giatan baitei berze utsi baner; eta utsi bat sartan bada giatra berze utsi bati, biak erortan dra zilulara.
15. Kemen Pedrok artan ziolarik elia erran zaun: esplika dazaguzu parabola kori.
16. Zoini Jesusek erresponditu zion: ¿Nola? ¿Baita xek ere zaudei izagunmentu kain txikirekin?
17. Etzeya bada izaguntan auan sartan den guziua igartan dela kantik tripa barniara, eta egoxtan dela leku sekretuetan?
18. Baya autik erkiten dena arkitenta biotzetik; eta kori da zikintan diona gizona.
19. Zeren biotza da nontik erkiten baitra pensamentu gaxtuak, gizonen iltiak, adulteriuak, fornikazioiak, ebasgiak, testimonio falsiuak, blasfemiak.
20. Gaiza kuek bai zikintan baitei gizona; baya xatiak eskiuak ekusi bage, korrek ez dau zikintan.
21. Partitruk kementik Jesus, erretiratu zen Tiro eta Sidoneko erri altiara.
22. Noizta Kananeako emazte bat xinik erri kartarik asi zen mintzo emoiten erranez: Jeina, Dabiden Seme, lastima ekun zazu nitaz: ene alaba dago anitx gaxki atormentatruk demoniuganik.
23. Jesusek ele bakotx bat ezaun erresponditu: era bere diszipuluak abañatan zrelarik, amediatan zren arengatik, erraiten: konzedi dazazu eskatan dena fan dein ber, zeren xiten baita irago eginez gore atzian.
24. Zoini Jesusek erresponditian, erran zion: Ni enaz izan oiltruk, beizik Israelen etseko ardi galtruk drenetra.
25. Kalarik ere ura eltu zen eta adoratu zaun erraiten: Jeina, sokorri nazazu.
26. Zoinek emon zaun errespuesta: Ezda justo artia semien ogia eta egoxtia txakurrer.
27. Baya ark erran zaun: Egia da, Jina; baya txakurxkuek xaten dei bere ere beren nausien maitik erortan dren apurretarik.

28. Gunian Jesusek erresponditan erraitan dau: O emaztia, andi tzu zore fedia; egin deila zuk deseatan tzun bikala. Eta ordu berartan bere alaba baratu zen sontotruk.
29. Kantik igari zen Jesus Galileako itxasuaren erribrara; eta igaitian mendi batra, xaseri zen kan.
30. Eta eltu zren arengana gente anitx eragutan zeilarik berekin mutu, utsi, mainku, baldatu eta berze anitx doloratruk, edo doloraturik eta izari ztein bere zankuetra edo oinetra eta sontotu ztion.
31. Kalako gisatan, baizauden gentiak arritruk ekustiari ele erraitan mutiuer, erabiltan mainkier eta ekustan utsier; eta glorifikatan zein Isrraeleko Jangeikuari.
32. Baya Jesusek, xuntatu ztiolarik bere diszipuluak, erran zion: Emoiten daitei konpadezimentu iri kuek zeren baitu xa iror egun daudela ene konpañian, eta ezdei xatekorik: eta ezdatur nai despeitu barurik, ez dein agi fallezi tian edo afleji tian bidian.
33. Baya bere diszipuluek erresponditu zabein: ¿Nola al ekunen digu leku desierto kontan ogi aski emoitako xatra biar dein guziua kainbat genteri?
34. Jesusek erran zabein: ¿Zomat ogi tzei? Erresponditu zein: zazpi, zomait arrainxkorekin edo arrantzukorekin.
35. Gunian manatu zion gentiari xaser litian lurrian.
36. Eta ark, artan ztiolarik zazpi ogiak eta arranak edo arrantziuak, emonez geroz graziak edo orazione egin garayan, partitu ztion eta emon ztion bere diszipuluer, eta diszipuluek errepartitu eztein iriari.
37. Eta xan zein guziuek, eta baratu zren aserik edo aspertruk; zati sobratu zrenetatik bete zein zazpi zare.
38. Xan zeinak zren laur milla gizon, kontatu bage aurrak ez emaztegeyak ere.
39. Korrekin despeditian etarik, sartu zen barkan eta igari zen Magedanen erriara.

*AMASEIGARNEN KAPITULUA. Fariseuak eta Saduzeuak konfunditruk; beren doktrinaren korronpimentiu: San Pedroren konfesionia eta leina izaitia, zoin sarri gero da justoki reprenditruk.*

1. Kona xin zren aren enkontriuara Fariseo eta Saduzeuak; eta ari tentatako, eskatu zabein ekustra emon lezabeila zeuriko zomait prodijio.
2. Baya ark erresponditu zabein: faiten denian eltuz gaya erraiten tzei aldizka: tenpra on eginen du; zeren zeuria baitago argi.
3. Eta goxetik: tronada edo tenpestade izanen da egun; zeren zeuria baitago odeizatruk eta ixikirik.
4. ¿Karekin badakizei adibinatan zeuriko señaletaz; eta ezdokezei izagun Mesiasa xin biar dion tenpra kuetako señaletaz? Raza edo jenerazione gaxto eta korronpitu konek eskatan du prodijio bat; baya ezau emonen eskatan den kori, beizik Profeta Jonasen prodijiu. Eta eiztan ztiolarik fan zen.
5. Xin zrelarik bere diszipuluak lagunaren berze altetik antze zren ogi artiaz.
6. Eta Jesusek erran zabein: Egon ztei kuidamenturekin eta guarda ztei Fariseuen eta Saduzeuen orantzetik.
7. Baya urak pensatibo fabrikatan zein bapanak bere buriuarekin, kaur erraiten du ogirik eragu ez digulakoz.

8. Zoin izaguntian Jesusek erran zion: fede txikitako gizonak ¿Zer erabilan zreidiskurritan xaurien baitan, ogirik etzeilakoz?
9. ¿Orainore izagumenturik bage zaudeya, eta ezreya guartan borz ogi repartitruk izan zrenetaz borz milla gizonen artian, eta zomat zareta puska baratu zitzaizein?
10. ¿Eztare zazpi ogietaz laur milla gizontako, eta zomat zareta biltu zinein sobratu zenetik?
11. ¿Nola etzei izaguntan ez ogiagatik erran daizeidala; guarda ztei fariseuetaz eta saduzeuetaz?
12. Gunian entelegatu zein eziola nay ekuntu erran guarda litiala orantz izartan denaz ogian beizik fariseuen eta saduzeuen dotrinaz.
13. Xitian gero Jesus Felipe Zesareako erriara galtegin zion bere diszipuluer: ¿Nor erraiten dei gizonak dela gizonaren Semia?
14. Ek erreponditu zein: banek dela Juan Bautista; berze banek Elias dela; berze banek, finalki, dela Jeremias edo Profetarik zomait.
15. Erraiten dabei Jesusek: ¿Eta xek nor erraiten tzei nazala ni?
16. Artan ziolarik elia Simon Pedrok, erran zion: Zu zra Kristua edo Mesiasa Jangeiko biziaren Semia.
17. Eta Jesusek erresponditan ziolarik erran zaun: Bienabenturatu zra Simon Juanen Semia, zeren ez baidaizu errebelatu kori aragiak eta odolak edo gizon zomaitek, beizik edo ez bada ene Aita Zeurian dagonak.
18. Eta nik erraiten daizud zu zrela Pedro eta arri konen gainian edifikaten duala ene Eliza; eta iburniko bortek edo poderak ez deila prebaleziten aren kontra:
19. eta zuri emonen daizud zeurien reinuaren giltzak; eta zuk lot zinezan guziua lurraren gainian, lotruk ere izanen tzu zeurietan; eta solta zinezan guziua lurraren gainian, izanen tzu ere soltatruk zeurietan.
20. Gunian mandatu zion bere diszipuluer ñori ere ez lezeila erran ura zela Jesus, Kristua edo Mesiasa.
21. Eta instante berian asi zen manifestatra bere diszipuluer konbeni zela ura fan zedin Jerusalenera, eta kan padezi lezan anitx Anzianuen, eskribainen, eta sazerdoten prizipalenen partez, eta izan ledin ilik, eta erresuzita zedin irorgarnen egunian.
22. Artan ziolarik aparte Pedrok, nai zaun apartatu intento kuetarik, erraiten: ¡A Jeina! ñolaz ere: ez, ez dizu agitu biar kori Zutan.
23. Baya Jesusek bueltatruk edo utzulirik arengana erran zaun: gen akida antzinetik, Satanas: eskandalizatan bainuk; zeren ez baitzuk izagumentu eta ez gustorik ere Jangeikuaren gaiza drenetez, beizik gizonenetaz.
24. Gunian erran zion Jesusek bere diszipuluer: Norbaitek nai badu xin ene atzian uka deila berari eta karga deila bere krutxiareki, eta xarreki danazala.
25. Bada nai lezanak salbatu bere bizia obratuz ene kontra galten du; baya gal lezanak bere bizia Ene amorioz, erdenen du.
26. Zeren ¿zer zerbutxatan du gizonari mundu guziuaren irabaztia, galtan badu bere arima? Edo zer bueltarekin al ekunen du gizonak reskatatu bein batez galtruk?
27. Kala da gizonaren Semia biar diola xin rebeztitruk bere Aitaren gloriáz, akonpañatruk bere ainguriuetaz, gizonen juzgatra; eta gunian emonen du pakiua bapanari beren obren tenoriara.
28. Egiaz erraiten daizeid daudela kemen zomait ez baitei il biar lein ezik ekus tzein gizonaren Semia aparezitan bere reinuaren resplandorian.

AMAZAZPIGARNEN KAPITULUA. *Jesusen Transfigurazionia. lunatiko endemoniatu baten sontotia: Jesusek pakatan du tributua beraren eta Pedrorengatik deiru edo deuri edo moneda batekin erdenik milagrosoki.*

1. Sei egunez gero Jesusek artu zion berarekin Pedro eta Santiago eta Juan bere anaxa; eta igaitian berekin solo mendi gora batra.
2. transfiguratu zen en presenzian; kalako gisan, bere begitartia izari baizen resplandezitruk iguzkia gisa, eta bere beztiduak zuri elurra bikala.
3. Eta tenpra berian aparezitu zitzabein Moises eta Elias fabrikatan arekin padezitu biar zionaz Jerusalemene.
4. Gunian Pedrok artan ziolarik elia, erran zaun Jesusi: Jeina, gaiza ona da egon gitian kemen: urdu bazaizu, forma tzagun kemen iror pabellon, bat zuretako eta berze bat Moisesentako, eta berzia Eliasentako.
5. Oraino zagon Pedro konbersazionian, odei argi bat xin zenian en estaltra; eta instante berian resonatu zion itz batek zoinek erraiten bai zion: Kaur da ene Seme maitia, nortan baitud ene konplazimentu guziuak, ari biar tzei beatu.
6. Kalako mintzuari diszipuluak erori zen begitartez lurrian, eta baratu zren ikareria andi batekin.
7. Baya Jesus eltu zen engana, tokatu ztion eta erran zabein: xagi ztei, eta etzazei lotsarik ekun.
8. eta azkatan begiak, ñor ere ezein ekusi beizik solo Jesus, edo Jesus bera.
9. Eta menditik xaixtian emon zabein Jesusek ordena, erraiten: etzazei erran ñori ere ekusi tzeina, gizonaren Semia erresuzitatu den bitartio ilen artetik.
10. Zoinen gainian galtegin zabein diszipuluek: ¿Nola bada erraiten dei eskribainek leinik biar diola xin Elias?
11. Koni Jesusek erresponditu zabein: Egiazki Eliasek biar du xin lein ezik ene bigarnen xitia, eta gunian berritan isaren tu gaiza guziuak.
12. Baya nik deklaratan daizeid: Elias xin zela xa, eta ezabein izaguntu, beizik egin zein arekin nai ekun zein guziua: gisa berian ere eginen dei ek padezi tzan gizonaren Semiak.
13. Gunian entelegatu zein diszipuluek mintzatu zaizkiola Juan Bautistaz.
14. Eltruk, gentek orkitan zabein lekiuara, eltu zen gizon bat, eta isaririk belairuko aren antzinian, erran zaun: Jeina, ekun zazu konpadezimentu ene semiaz, zeren lunatiko baita, eta anitx padezitan baitu; bada anitx narotan erortan tzu suara eta aldi anitxez uriara.
15. Eta presentatu diez zore diszipuluer eta ezdezei ekun poderik ura sontotako, edo sonto dazein.
16. Jesusek errespuestatan erran zion: ¡O raza xinestako gogor eta perbersua! ¡Noiz bitartio biar dur bizi izan xekin? ¡Noiz bitartio biar ekunen daizeid sufritu! Eragu dartzazeid kona.
17. Eta Jesusek amenazatu zion demoniua, eta erkin zen morroinetik, zoin baratu zen sontotruk momento kartaz danik.
18. Gunian diszipuluak mintzatu zren aparte Jesusi, eta erran zabein: ¿Nolaz edo zerengatik ez digu guk ekun poderik aren egoxtako?
19. Erresponditu zabein Jesusek: Zeren baitzei fede txiki: Bada ziertoki aseguratun daizeid ekun bazinezei fede kain andi nola mostazariko granoxko bat, erran dokezei



mendi korri: lekuz muta zte kementik kara, eta lekuz mutaten da; eta ezaizei izanen deus inposiblerik.

20. Eta ez baita xa demoniuen kasta kaur egoxtan ez bada orazioniaren eta baruraren medioz.

21. Urak zauden bitartio Galilean, erran zabei berriz Jesusek: Gizonaren Semia biar du izan entregatruk gizonen eskiuetan,

22. eta ilen dei, eta erresuzitaten da irorgarnen egunian. Zoinekin diszipuluak aflijitu zren manera anditan.

23. Eltu garayan Kafarnaunera, abañatu zizazkan Pedrori bi adarmezko tributua bilzaliak, eta erran zabein: ¿Zer, ez dia pakatan xen Maixtruak bi adarmiak?

24. Bai ziertoki, erresponditu zion. Eta sartu zrelarik etsen antzinatu zitzaun Jesus erraiten: ¿Zer urdu zaizu, Simon? Lurreko erregek ¿norenganik kupratan tei kontribuzioniak edo zentzak? ¿Beren seme propiueganik edo estrañueganik?

25. Estrañueganik, erran zion arek. Replikatu zion Jesusek: Kola bada semiak daudezu eskusatruk.

26. Kalarik ere, ez ditian eskandaliza, fan zte itxasuara eta egotx zazu anzuelua eta arrapa zazu lein arrantzu erkin ledina, eta irikitan tzaularik aua, erdenen tzu laur adarmetako zidarrezko puska bat: ar zazu, eta emon dazazu ni eta zoregatik.

**EMEZORTZIGARNEN KAPITULUA.** *Jesusen doktrina umildadiaren gainian, eskandalozko bekatiuaz, eta projimo lagunaren korrekzioniaz. Artzain onaren parabola. Bekatiuen parkatako potestadiaz: bekatarier ekun bear den konpasioniaz; eta enemiguen parkamentiuaz. Amar milla talentiuen parabola.*

1. Okasione kontan berian abañatu zren diszipuluak Jesusengana, eta egin zabein galtegingua kaur: ¿Nor biar du izan andiena zeurien reinuan?

2. Eta Jesusek, deitan ziolarik berarengana aur bat, izari zion en erdian,

3. eta erran zion: Egiaz erraiten daizeid ez bazrei bueltatan eta egitan aurrer semejante, zenzillezian eta inozenzian, ezrei sarten zeuriko reinuan.

4. Nornaiden bada umilla ledin aur konen gisa, kori izanen da andiena zeurien reinuan.

5. Eta errezibi lezanak kalako akabatan duan erraitiaz gisako aur bat, ene izenian, Ñauri errezibitan nu.

6. Baya eskandaliza lezanak Nitán xinetstan dein aurxko kuatarik bati obe izanen zaun kolga leza bein kuellotik errotazko arri asto batek erabiltan dion korietarik bat, eta kola izan ledin sumerjitrak itxasuaren onduan.

7. ¡Ay mundiataz eskandaluak dre la kasoz! zeren nestatez izanik ere, gizonen maliziaren agerian agi tian eskandaluak; kalarik ere ¡ay eskandalua emoitan dion gizon kartaz!

8. Zeren zore eskiua edo zore zankua okasione bazaizu eskandalo emoitako, edo bekatu egitako, ebaki ditzazu, eta egotx ditzazu zutarik urrin; bada obe dazaizu sartia sekulako bizian manki edo mainku, ezik ez bi eskurekin edo bi zankorekin izan ztian egotxerik sekulazko suara.

9. Eta zore begia balimada zoretako eskandalotako okasione, erkin zazu, eta egotx zazu zutarik urrin: obe dazaizu sartu sekulako bizian begi bakotx batekin, ezik ekun zazun bi begi eta izan ztian egotxirik iburniko suara.

10. Mira zazei etzaizela desprezia txikerxko kuetarik zomait: zeren xakitra emoitan daizeid beren guardazko ainguriuak zeurietan daudela betik ekustan ene Aita zelestialaren begitartia.
11. Eta konen gainian gizonaren Semia xin da galtu zenaren salbatra.
12. Gizon batek balimadu ein ardi eta etarik bat gal baledi ¿zer urdu zaizeid eginen diola gunian? ¿Ez dia eitzen laurogeita emeretziak mendietan eta fanen galtu denaren txerka?
13. Eta suertez erdeiten badu, egiaz erraiten daizeid ark solo emoiten dau konplazimentu andiago, ezik galtu ez zitzaun laurogeita emeretziuek.
14. Kola bada, ezda xen zeurietan dagon Aitaren borontatia, gal dein txikerxko kuetarik bakotxik ere.
15. Zore anaxak bekatu egin baleza zore kontra, edo eror baledi zomait kulpatan, fan zte eta korriji dazazu zaudelarik arekin lagunguarik bage. Beatan badaizu, irabazi, zunion zore anaxa.
16. Ez baleza kasorik egin zutaz, orainore baliaste bi edo bi personataz, guziua izan dein konfirmatruk bi edo iror testigoren autoritatiekin.
17. Eta kasorik ez balezabei egin, erran dazauzu Elizari. Baya Eliza berari ere ez baledi bea, ekun dazauzu jentil edo publikano bikala.
18. Enpeñatan daizeid ene itza, lot zinezein guziua lurriaren gainian izanen dela kori bera lotruk zeurian; eta solta zinezein guziua lurriaren gainian, izanen dela kori berbera soltatruk zeurian.
19. Erraiten daizeid obro; xetarik bi xunta balinte alkar edo beren artian lur gainian eskatako zerbait, izan dein izan ledina, otorgatruk izanen zabei ene Aita zeurietan dagonarenganik.
20. Zeren bi edo iror dauden lekiuan xuntatruk ene izenian kan nago Ni en erdian.
21. Aldi kontan arrimatan zitzaularik Pedro, erran zaun: ¿Jeina, zomat aldiz biar ekunen dur parkatu ene anaxari bekatu egin lezarian ene kontra? ¿Zazpi aldi bitartio?
22. Erresponditu zaun Jesusek: Ez daizud erraiten nik zazpi aldi bitartio beizik irorogei ta amar aldiz zazpi bitartio edo zomat aldiz ofenditan daizun.
23. Konengatik zeurien reinua xiten da izaitra asemejatruk errege bati zoinek nay ekun baizion kontiuak artu bere zerbutxari mitiler.
24. Eta asi zelarik kontiuen errezebitra, presentatruk izan zitzaun bat, zoinek zor baizaun amar milla talento.
25. Eta nola konek ez baizakan zerekin paka, manatu zion bere nausiak izan litian saltruk ura eta bere emaztia ete bere semiak bere azienda guziuarekin eta paka zedin kala zorra.
26. Gunian mitil zerbutxaria egoxtan zelarik aren zankuetra, otoi egitan zaun erraiten: ekun zazu pazienza amintyo bat, zeren nik pakaten baidaizud guziua.
27. Mobitruk nausia konpasionez zerbutxari kartaz, eitzi zaun libre eta orainore parkatu zaun zorra.
28. Baya apenas erkin zen zerbutxari kaur aren presenziatik enkontratu zion bere lagunetarik bat zoinek zor baizaun ein deuri zidarrezko eta arrapatan zaularik lepotik itotan zaun erraiten zaularik: paka daztadak zor daitadayana.
29. Laguna, egoxtan zelarik aren zankuetra otoyey eskatan zaun, erranez: ekun zak pazienza amintyo bat enekin, zeren nik pakaten baitadak guziua.
30. Baya arek ez nay ekun zaun beatu, beizik fan zen eta sartu arazi zion karzelian paka lezaun bitartio zor zauna.

31. Ekustian berze serbutxari aren lagunek igartan zena bete zren tristuriaz ezin obro, eta fan zren kontatra beren nausiari agitu guziua.
32. Gunian deitu zaun bere nausiak, eta erran zaun: O zerbutxari perbersoa, nik parkatu nayan zor guziua zeren otoika eskatu baininyon.
33. ¿Ezena bada justo yik ere ekun yezan konpadezimentu yore lagunaz nik ekun nion bikala yitaz?
34. Eta irratruk nausia entregatu zaun berduguen eskiuetan, izan zedin atormentatruk paka lezan bitartio zor guziua osoki.
35. Kala gisa kontan portaten da ene Aita zelestiala xekin bapanak parka ez baleza biotzez bere anaxari.

EMERETZUGARNEN KAPITULUA. *Erakustan du Jesusek, matrimoniua desegin ez deitekela; eta akonsejatan du birjinidadia: tratatan du abratsek difikultate deinaz bere salbazioniaren; era aren amorioz gaiza guziuak renunziatan deinen premiuz.*

1. Akabatu ztiolarik Jesusek diskurrimentu kuek, partitu zen Galileatik eta xin zen Judeako lurretra Jordanaren berze altian daudenetra.
2. nora xarrekitu zizkaun gente multitud andi bat, eta sontotu ztion kan beren eriak.
3. Eta eltu zren arengana fariseuak tentaraztako, eta erran zabein: ¿Lizito dia gizon bati despeditia bere emaztia zernaidden motiboz?
4. Jesusek errespuestatan erran zabein: ¿Etzeya leitu prinzipiuan kriatu zion karek linaje umana, kriatu ziola gizon bat solo eta emazte bakotx bat; eta erran zela:
5. Korrengatik eitzen du gizonak bere aita eta bere arna, eta xuntaten da bere emaztiarekin, eta izanen dra bi, aragi bakotx batian?
6. Kola bada, xa ez dra bi, beizik aragi bakotx bat. Jangeikuak bada xuntatu diona, etzala berex edo desuni gizonak.
7. Baya ¿Zerengatik, erreplikatu zein ek, manatu zion Moisesek emoitia, repudioaren libroxkua eta emaztiaren despeditia?
8. Jesusek erran zabein: xen biotzaren gogortarzunaren kausaz permititu zaizein Moisesek repudiatia xaurien emaztiak; baya prinzipiuan ezen izan kola.
9. Kola bada deklaratan daizeid, nornaidenek despeditia lezan bere emaztia, ez izaitian adulteriuaren kaso, eta oraino kaso kontan bordal baledi berze emazte batekin, kolakuak obratan du adulterio; eta bordal ledina diborziatuarekin, adulteriotan erortan da ere.
10. Erraitan dabein bere diszipuluek: kola bada gizonaren kondizionia bere emaztiaren kaso, ez du eragutan konturik bordaltia.
11. Jesusek erresponditu zabein: ezdra guziuak kapaz erresoluzione kontako, beizik kurak zoiner konzeditu baizabei goraki.
12. Zeren baitaude eunuko banak sortu baizren kala beren amen entrañatik; eta daude eunuko osotruk izan baizren gizonenganik; eta eunuko berak osatu baizren zomait gisatan zeurien reinuaren amorioz kastidateko botoarekin. Kontako kapaz izan deitekena, izan deila.
13. Sazoin kontan presentatu zabein aur banak isar lezan eskiuak beren gainian, eta egin lezan orazione. Baya diszipuluek ustez importunatan zabeila, desafiatan ztein.
14. Jesusek kontrarioz erran zabein: Eitz ditzazei aurrak bakian, eta estorba ez ditzazei xintian Enegana; Zeren en gisa drenentako baita zeurien erreinua.

15. Eta izari ztiolarik eskiuak beren gainian, edo bendizionia egotxi zabeilarik, partitu zen kantik.
16. Abañatu zitzaun gunian gizon gazte bat zoinek erran baizaun: Maixtro ona, ¿Zer obra onak biar dur egin sekulako bizia konsegitako?
17. Zoinek erresponditu zaun: ¿Zerengatik deitan nuzu ona? Ona tzu solo Jangeikua Berze gainaran, nai batzu sartu sekulako bizian, guarda tzazu edo guarda ditzazu mandamentiuak.
18. Ark erran zaun: ¿Zoin mandamentu? Erresponditu zion Jesusek: Ñori re etzu ilen: adulteriorik etzu eginen: etzu ebatsen: testimonio falsurik etzu azkaten.
19. Onrra zazu zore aitari eta zore amari; eta maite ekun zazu zore projimua ziaur bikala.
20. Erraiten dau gaztiak; koriek guziuak guardatu tur ñore gaztezutudanik. ¿Zer obro falta zaitad?
21. Erresponditu zaun Jesusek: Nai batzu izan perfekto, fan zte eta sal zazu tziuan guzia, eta emon dazauzei pobrer eta ekunen tzu tesoro bat zeurian: xin zte gero, eta xarreki naizte, edo naztazud.
22. Entzun ztiolarik gaztiak ele kuek, erretiratu zen tristuriaz beterik; eta zen posesione anitx ziolakoz.
23. Jesusek erran zion gunian bere diszipuluer: egiaz erraiten daizeid nekez sarten dela abrats bat zeurietako reinuan.
24. Eta oraino ere erraiten daizeid obro: fazilago edo aisago da igartia kamello bat orratz baten begitik, ezik sar dein abrats bat zeurien reinuan.
25. Entzun geroz proposizione kuek, diszipuluak zauden anixko marabillatruk, erraiten alkar: segun kaur, ¿Nor salba deiteke?
26. Baya Jesusek beiratan ztiolarik bellaki, erran zabein: gizonentako kaur imposible da; baya Jangeikuarentako gaiza guziuak dra posible.
27. Gunian artan ziolarik Pedrok elia, erran zaun: Onki ekustan tzu eitzi tigula gaiza guziuak, eta xarrekitu daiguzula. ¿Zoin izanen bada gore pakiua?
28. Baya Jesusek erresponditu zaun: Egiaz erraiten daizeid, xek zarrekitu zaizteidanak, resurreziona unibersalaren egunian, gizonaren Semia xaseren denian beren Majestadiaren soliuari, xek xeseren zrei amabi sillaren gainian, eta juzgaten ditzei Isrraeleko amabi tribuak.
29. Eta nornaiden eitzi al dionak etsia, edo anaxak, edo arrebak, edo aita, edo emaztia, edo semiak, edo eredadiak, ene izenaren kausaz errezibiten du ein aldiz obro ontarzun firmeza obrotako drenetan; eta ekunen du gero sekulako bizia.
30. Eta anitx leinak zrenak mundo kontan, izanen dra azkenak; eta anitx azkenak zrenak, izanen dra leinak.

OGEIGARNEN KAPITULUA. *Ardauntziara trabajatra obrero deitruk izan zrenen parabola. Jesusek erraiten du antzinetik bere muertia edo iltia eta resurrekziona. Erresponditan du Zebedeoren semen amaren pretensionari. Emoiten du ekustia bi utsiri.*

1. Zeren Zeurien reinua urdu baita familiatzko aita bati; zoin egunaren autstiarri erkin baizen jornalari txerka bere ardauntzuko.

2. eta ajustatan zelarik ekin zidarrezko deuri batian egun bapanaren, oiltu ztion bere ardauntziara.
3. Eta erkitian gero bedratziuen ordiari abantxu, enkontru emon zion berze banekin, zoin baizauden eskiuak krutxatruk plaztan,.
4. eta erran zabein: fan ztei xek ere ene ardauntziara, eta emonen daizeid justo izanen dena.
5. Eta urak fan zren: Berze bi aldiz erkin zen eguerdiko eta arrastriko iruretako ordu ketan, eta egin zion gisa berian.
6. Azkenik erkin zen arrastriaren azken ordiari abantxu, eta ekusi ztion berze banak baizauden oraino deus egin bage, eta erran zabein: ¿Nola zaudei kemen aurer egun guzian?
7. Erresponditu zabein: ñore ere ezbaigututaz alkilatu. Erran zabein: fan ztei bada xek ere ene ardauntziara.
8. Sartruk iguzkia, erran zion ardauntziaren nausiak bere mayordomuari: Dei tzazu trabajazaliak, eta paka dazauzei jornala, astan zrelarik azkenetarik, eta akabatan tziularik leinetan.
9. Xin baikoz bada fan zrenak arrastriko azken ordiara abantxu, errezibitu zein zidarrezko deuri bat bapanak.
10. Azkenik eltu zrenian leinak, urdutu zabein emonen zitzabeila obro. Baya kalarik ere, errezibitu zein kuek gisa berian bapanak bere deuria.
11. Eta errezibitian, murmuratan zein familiaz aitaren kontra.
12. Erraiten: azken kuek ex dei trabajatu ez beizik oren bat, eta igualatu dutuk gorekin soportatu baitigu egunaren eta beruaren peziua.
13. Baya ark errespuestatan erran zion etarik bati: adexkidia, ez daizud nik egiten agrabiorik, ¿Ez zintzena ajustatu enekin deuri batian?
14. Ar zazu bada zoria dena, eta fan zte: nik nai diez emon koni, azkena izanik ere, kainbat nola zuri.
15. ¿Ez dokeda ote nik egin ñoriataz nai duana? ¿Edo zore begia biar du izan gaixto edo inbidioso, ni nazalako on?
16. Gisa kontan azken drenak mundu kontan izanen dra leinak zeurien reinuan, eta leinak azkenak. Anitx dra bada deitiuak; txiki baya eskojitiuak.
17. Isartan zelarik Jesus bidian Jerusalenerako, artu ztion aparte bere amabi diszipuluak eta erran zabein:
18. Ekus zazei fainten grela Jerusalenera, zointan gizonaren Semia izanen baita entregatruk sazerdotien prinzipalener, eta eskribain<sup>er</sup>, eta kondenaten dabei iltra;
19. eta entregaten dabei jentiler izan dein eskarnizitruk eta azotatruk eta kruzifikatruk; baya ura erresuzitaten da irorgarnen egunian sartako bere glorian.
20. Gunian Zebedeoren semen ama abañatu zan bere bi semekin, eta adoratan dau, emoitentelegatra nai daua eskatu zomait grazia.
21. Jesusek erran zaun: ¿ Zer nai tzu? Eta arek erresponditu zaun: Disponi zazu, ene bi seme kuek ekun tzein beren xaseririk egoitia, edo xaser lekiua zore reinuan, bata zore eskoñiara eta berzia zore ezkerriara.
22. Baya Jesusek emon zaun errespuestatako: Ez dakizei zer eskatan zrein; ¿Edan dokezeya pasionaren kaliza nik edan biar duana? Erraiten dabei: onki dokegu.
23. Erresponditu zabein: Ene kaliza bai edanen baitzei; baya xasertia ene eskoñara edo eskerriara ez zaita tokatan konzeditia xer, beizik izanen baita ene Aitak destinatu dion kentako.

24. Kaur entzutian edo entelegatian berze amar apostelek, indinatu zren bi anaxen kontra.
25. Baya Jesusek deitu ztion berarengana eta erran zabein: Etzei ignoratan nazionetako prinzipiek sujetatan teila beren iriak, eta beren andienek dominatan teila inperiorekin.
26. Ez da izan biar kola xen artian, beizik pretendi lezanek izaitia andiena xen artian, biar du izan xen zerbutxaria;
27. eta nai dionak izan xen artian leina izan biar du xen exklabua.
28. Kala nola gizonaren Semia ez baita xin izaitra zerbutxatruk, beizik zerbutxatra, eta bere biziaren emoitra anitxen redenzioniarentako.
29. Erkitiari Jerikotik fan zitzaun xarrekituz gente multitud andi bat;
30. eta nonta bi utsi baizauden xaseririk bidiaren altakan, entzutian erraiten igartan zela Jesus, asi zren iragoka, erraiten: Jeina! Dabiden Semia! lastima ekun zazu gutaz.
31. Baya gentek ankar egiten zabein ixilik egon litian. Ek kalarik ere azkatan zein obro iragua, erraiten: ¡Jeina, Dabiden Semia! apiada zte gutaz.
32. Kontan baratu zen Jesus, eta deitan ztiolarik erraiten zabein: ¿Zer nai tzei egin dazaizen?
33. Jeina, erresponditu zabein ek, irikirik izan tian gore begiak.
34. Mobitruk Jesus konpasionez, tokatu ztion beren begiak, eta instante berian ekusi zein; eta fan zren Aren atzian.

OGEITA BATGARNEN KAPITULUA. *Jesus sartan da Jerusalemene aklamaturuk Mesiastaz. Egoxtan tu tenplotik kan saltan zaudenak. Maradikatan du figo arbole bat; eta bere kontradezizaler konfunditan tu parabolaz eta arrazoinez.*

1. Abañatan zrelarik Jerusalemenera, eltu zren baikoz Betfajeren agerriara, olibuen mendi onduara, despatxatu ztion Jesusek bi diszipulo,
2. erraiten zabeilarik: ortzei alde xaurien aurkian agiri den kortra, eta obro dilijenziarik bage erdenen tzei astaña bat lotruk eta bere asto umia arekin: solta ditzazei, eta eragu daztazeid.
3. eta norbaitek zerbait erran balaize, errespondi zazei biar ditiola Jeinak, eta puntu berian eitzen daizei eramaitra.
4. Erran zazei Sionen alabari: mira zazu, xiten dela zoregana zore erregia mansedunbrez beterik, xaseririk astaña baten gainian, eta bere astumiarenian, uztarriara emonik dagonaren seme.
6. Fan garayan diszipuluak, egin zein Jesusek manatu zabeina;
7. eta eragu zein astaña eta astumia, eta aparejatu ztein beren beztiduekin, eta xaserarazi zein gainian.
8. Eta gente multitud andi batek, edatan ztein bidian beren beztiduak edo trastiak: berze banek ebakitan zein erramu edo osto arboletarik, eta isartan ztein leku igari biar zionetik:
9. Eta kainbat antzinetik faitan zren gentek, nola atzintik xitan zrenek, klamatan zein erranez: osana, osagarri eta gloria, Dabiden Semiari; Benedikatruk izan deila Jeinaren izenian xiten dena: osana, zeurien goraguan.
10. Sartu zen baikoz kola Jerusalemene, konmobitu zen ciudade guziua erraitan zelarik anitxek: ¿Nor da kaur?

11. Zoini erresponditu zein gentek: Kaur da Jesus, Profeta Nazaretekua.
12. Sartu Zelarik Jesus Jangeikuaren Tenpluan, egotxi ztion kantik kanpo, kan saltan zein eta erostan zein guziuer, eta egotxi ztion bankeruen edo xneazalen mayak; eta sakrifizuetako urxo saltan zeinen sillak;
13. eta erran zabein: Eskribitruk dago: Ene etsia izanen da deitruk orazionezko etsia; baya xek dakazei eginik ladronen kueba bat:
14. Tenpra berian eltu zren arengana tenpluan anitx utsi eta mainku eta sontotu ztion.
15. Baya sazerdotien prinzipek, eta erakuszalek, ekustian egitan ztion marabillak, eta aur aklamatan zabeinak tenpluan, erraiten: osana Dabiden Semiari, indinatu zren;
16. eta erran zabein: ¿Entzutun tzia zuk zer erraiten dein kuek? Jesusek erresponditu zabein: bay ziertoki: ¿bada etzeyea sekulare leitu profezia: Infantien eta titiko aurren autik da nontik erkin baizunion alabanza perfektuena?
17. Eta eitztan ztiolarik, erkin zen ziudadetik kanpo Betaniara, eta baratu zen kan.
18. Biramen goxan, bueltatan zelarik zitudadiara, ekun zion gose.
19. Eta ekustian figo arbole bat bidiari xunto, abañatu zen arengana; zointan ez erdeitian ez beizik ostoa kain solo, erran zaun: ñoiz ez sekula ere, sor ez deila frutu yitarik; eta figo arbolia baratu zen bartan exartruk.
20. Zoin ekustian diszipuluek, baratu zren marabillatruk, eta erraiten zein: ¿Nola exartu da instante batian?
21. Eta erresponditan Jesusek, erran zabein: egiaz erraiten daizeid balimatzei federik eta ezbazrei erabiltan zozobratan, ez solo eginen tzeila figo arbolian ekustan tzein kori, baitare erran zazeinian ere mendi korri: arranka zte eta egotx zte itxasuara, kala eginen diola.
22. Eta eska zinezein guziua orazionian, fede ekun zazein ber, alkantzaten tzei.
23. Eltuz gero tenpluara abañatu zren Arengana, erakustan zagolarik xa, sazerdotien prinzipalak eta iriko zarrak edo Senadorak, eta galtegin zabein: ¿Zer autoridaderekin egiten dutzu gaiza kuek? ¿eta nork emon daizu kalako potestadia?
24. Erresponditu zabein Jesusek: Nik ere nai daizeid egin pregunta bat: eta erresponditan badaitazeid ari, erranen daizeid bertan zer autoridaderekin egiten tuan gaiza kuek.
25. ¿Juanen batixua nontik zen? ¿Zeuritik edo gizonetarik? Baya ek diskurritan zein beren baitako erraiten:
26. Erresponditan badigu zeuritik, erranen daikugu: ¿Zeren bada etzei xinetsi artan? Erresponditan badigu zela gizonenganik, biar digu lotsa ekun iriari. Zeren guziuek miratan baizein Juani Profeta bat bikala.
27. Korrengatik erresponditu zein Jesusi erraiten: Ezdakigu. Ark erresponditu zabein bertan: Bada nik ere ezdaizei erranen xer zer autoridaderekin egiten tuan gaiza kuek.
28. ¿Eta zer urdutan zaizei erraitra nuanaz: Gizon batek ztion bi seme, eta deitan ziolarik leina, erran zaun: semia, fan adi egun trabajatra edo lan egitra ene ardauntziuan.
29. Eta ark erresponditu zion: ez dur nay: Baya gero arrepenitruk fan zen.
30. Deitan ziolarik bigarna erran zaun gaiza bera, eta ark erresponditu ziolarik: fanen naz, Jeina; baya ezen fan.
31. ¿Zoin bietarik egin zion aitaren borontatia? Leinak, erran zein ek. Eta prosegitu zen Jesus: Egiaz erraiten daizeid, publikanuak eta ramerak edo emazte galtiuak fanen drela xen antzinetik, eta sarten drela Jangeikuaren reinuan.

32. Zeren xin baizen Juan xengana justiziazko bidetarik, eta ezinabein xinetsi; publikanuek eta ramerek xinetsi zabein tenpra berian. Baya xek, kaur ekustian ere, ezintzein mobitu gero penitenzia egitra artan xinesteko.
33. Entzun zazei berze parabola bat. Zen famialazko aita bat zoinek plantatu baizion arduntze bat eta zerratu unguriuan; eta atxurtuz egin zion artan lago bat, eta obratu zion torre bat; arrendatu zion gero labrari zomaiti, eta ausentatu zen erri urrin batra.
34. Eltu baikoz frutiuen sazoina, oiltu ztion zerbutxariak arrendazaliengana errezi lezein aren frutiua.
35. Baya arrendazaliek edo arrendatariek enprenditan zrelarik zerbutxarien kontra, makilastatu zein bata, il zein berzia, eta berzia arrikaldikatu zein.
36. Bigarnen aldiz oiltu zion zerbutxari berri numero andiagotan ezik leinagokuak, eta tratatu ztein gisa berian.
37. Azkenik oiltu zabein bere semia, erraiten bere baitan: Ene Semiari bere ere errespetaten dei.
38. Baya arrendatariek ekustian semia, erran zein beren baitan: Kaur da erederua, xin ztei, il dazagun, eta kargaten gra aren erenziuarekin.
39. Eta arrapatan zeilarik, egotxi zein ardauntzik kanpo, eta il zabein.
40. Orai bada utzultian ardauntziuaren nausia, ¿zer eginen du labrari ker?
41. Eginen du erran zein ek, gente kain gaixto kaur akaba deila miserableki, eta arrendaten du bere ardauntziua berze labrari baner paka dazabein frutiak bere tenpretan.
42. ¿Etzeyeta bada ñoiz ere leitu Eskiriturretan, añaditu zabein Jesusek: Arri errebusatu zeina fabrikazaliek, kori bera xin zen izaitra anguluaren giltza? Jeina da egin diona kaur giaren egunetan, eta da gaiza bat admirable gore begietra.
43. Zoinengatik erraiten daizeid izanen zaizeila xer gentruk Jangeikuaren reinua, eta emonik obra ontako frutiak emoiten dein genter.
44. Kala da nola eskandaliza edo eror ledina arri konen gainian, zatikatuk izanen baita; eta arri berak porrokatu du kari zoinen gainian eror ledin juizioko egunian.
45. Entzunik Jesusen parabola kuek, sazerdotien prinzipek eta fariseuek entelegatu zein mintzatan zela engatik.
46. Eta nai zabeilarik preso egin, lotsa ekun zein iriari; zeren baizen ekusirik profeta bat bikala.

*OGEITABIGARNEN KAPITULUA. Errege bere semiaren ezteyeta konbitatu zionaren parabola. Pakatruk izan biar dionez tributua Zesarari. Doktrina erresurrekzionaren gainian. Kristo Dabiden Semia eta Jeina.*

1. Bitartio Jesusek prosegitan zelarik platikatan, mintzatu zabein berriz, parabolatan erraiten:
2. Zeurien reinuan agitan da agitu zauna errege bere semiaren ezteyak zelebratu zion bati;
3. eta oiltu ztion bere zerbutxariak konbidatiuen deitra ezteyeta, baya kuek ez zein nay ekuntu xin.
4. Bigarnen aldiz oiltu zion zerbutxari berri ordenurekin erraiten aren partez konbidatiuer: Dakad disponitruk bazkaria: ilarazi dutur ene xanlak eta berze animale gizontuak, eta guziua dago bere puntuan: xin ztei bara ezteyeta.



5. Baya ek ezein egin kasorik; leinaz bay fan zren, nor bere bordara, eta nor bere kontinorozko trafikiuara.
6. Berze gainarakuek arrapatu ztein mitilak edo zerbutxariak, eta ultrajez betez gero, il ztein.
7. Zoin entzunik izan baikoz erregiaganik, azkatu zen koleran, eta oiltian bere tropak akabatu ztion gente ilzale kekin, eta abrasatu zion bere ziudadia.
8. Gunian erran zion bere zerbutxarier: disponimentuak ezteyetako eginik daude, baya konbidatiuak ezren dino etra asisti litian.
9. Fan ztei bada bidien erkinguetra, eta erdeiten zein guziuak konbidatu ditzazei ezteyetra.
10. Instantian zerbutxariek, erkitan zrelarik bidetra, biltu zein erden ztein guziuak, onak eta gaixtuak; kalako maneran, ezteyetako sala bete baizen mayara izari zrenen gentez.
11. Sartian gero errege konbidatiuen ekustra, erreparatu zion kan gizon bat ezela faiten ezteizko beztidorekin.
12. Eta erran zaun: Adexkidia, ¿Nola sartu zra zu kemen ezteizko beztidorik bage? Baya ura mututu zen.
13. Gunian erran zion erregek justiziazko bere ministruer: zankuetarik eta eskiuetarik lotruk egotx zazei kanpo ulunguetra; non ezbaita izanen beizik marraka eta ortzen garraska.
14. Kain zierto da anitx drela deitiuak eta txiki eskojitiuak.
15. Gunian fariseuak erretiratu zren tratatra beren artian, nola sorprendi zokin mintzo zomaitan.
16. Eta kontako oiltu zabein beren diszipuluak zomait herodianorekin, zeinek, erran baizabein: maixtrua, badakiguzu zreia egierrailia eta erakutstan tziuala Jangeikuaren bidia edo legia egi xainari konforme, respetorik bage ñorire, zeren ezbaitzu beira egitan personen kalidadiari.
17. Suponimentu kontan, erran daizguzu zer urdu zaizun kontaz: ¿Lizito dia edo ez, judiuer, Jangeikuaren iriari, pakatia tributua Zesarari?
18. Zoini Jesusek, izaguntan beren malizia refinatiua, erresponditu zion: ¿Zerengatik tentatan naizei, O ipokresiadun gizonak?
19. Erakus daztazeid deuria zointaz pakatan den tributiuak; eta ek mostratu zabein deuri bat.
20. Eta Jesusek erran zabein: ¿Norna da imajen kaur edo letrero Kaur?
21. Erresponditan dabei: Zesararna. Gunian erreplikatu zabein: Emon zazei Zesarari Zesararna dena, eta Jangeikuari Jangeikuarna dena.
22. Kalako errespuestarekin baratu zren admiratruk, eta eitztan zeilarik, fan zren.
23. Egun kartan berian xin zren saduzeuak baidra erresurrekzionia ukatan deinak, ari proponitra kaso kaur:
24. Maixtrua, Moisesek ordenu emon zion, norbait iltan bada semerik bage, anaxa bordal deila bere emaztiarekin emon tzan suzesione bere anaxari.
25. Kasua da zrela gore artian zazpi anaxe. Bordaltruk leina, xin zen iltra; eta ez ekutian suzesionarik, eitzi zion bere emazia bere anaxari.
26. Gaiza bera agitu zitzaun bigarnari eta irorgarnari zazpigarniara daino.
27. Eta urak guziuak ilez geroz, il zen emazia.
28. Oray bada, resurrekzionia el dein baikoz, ¿zoinena zazpietarik biar du izan emazte, yaketa guziunena izan baizen?

29. Zoini Jesusek erresponditu zabein: uts andirekin zabiltezi, etzeilakoz entelegatan Eskriturak, ez Jangeikuaren podera ere.
30. Zeren resurrekzioniaz geroz, gizonak ezbaitei arten emazterik, ezta ere emaztekin arten senarrik, beizik izanen baitra Jangeikuaren ainguriuren bikala zeurian.
31. Baya ilen resurrekzionairen gainian ¿etzeya leitu Jangeikuak erranik dazkazein eliak:
32. Ni naz Abraanen Jangeikua, Isaaken Jangeikua, eta Jakoberen Jangeikua? Oray bada, Jangeikua ezda ilen Jangeikua, beizik biziena.
33. Zoin entzunez geroz iriak, zegon arritruk aren doktrinaz.
34. Baya fariseuek, informatruk aua tapatu ziola saduzeuer, xuntatu zren;
35. eta etarik batek, legiaren erakutszale, galtegin zaun tentiagatik:
36. Maixtrua, ¿zoin da legiaren manamentu prinzipala?
37. Erresponditu zaun Jesusek: Maitaten tzu zore Jangeiko Jeina ziauren biotz guziuaz, eta ziauren arima guziuaz, eta ziauren entelegu guziuaz.
38. Kaur da andiena eta lein mandamentuak.
39. Bigarna da koni urdu edo asemejatrak, eta da: Maite ekun zazu ziauren projimua ziauren buriua bikala.
40. Bi mandamentu kuetan dago zifratruk lege guziua eta Profetak.
41. Zaudelarik kemen xunto fariseuak, Jesusek egin zabein pregunta kaur:
42. Zer urdutan zaizei xer Kristuaz edo Mesiasaz? Noren seme da? Erraiten dabe: Dabidena.
43. Erreplikatu zabein: ¿Nola bada Dabidek profeziazko espirituan deitan dau bere Jeina, erraiten dionian:
44. Erran zion Jeinak ene Jainari: xaser zte ene eskoinara, nik izartan duan artian zore enemiguak zore zankuen asientotako.
45. Bada Dabidek deitan badau bere Jeina, ¿nola izan deiteke aren semia?
46. Zoini ñork ere ezabein al ekun erresponditu ele bat ere; eztare ezen xa izan egun kartarik landa nor atrebi lekien egitra obro pregunta.

**OGEI TA IRORGARNEN KAPITULUA.** *Kondenatan du Jesusek fariseo erreguridade sopra andia, iriari erakutstan dein doktrinan: mintzatan da beren ipokresia eta soberbiaren gainian edo kontra: legiari esplikazione falsu emaiten deinetaz profeten indarzka iltiaz; eta Jerusalemene desegingiuaz.*

1. Gunian dirijitian Jesusek bere elia edo mintzua iriari eta bere diszipuluer,
2. Erran zabein: Eskribainak, edo legiaren erakuszaliak, eta fariseuak daude xaseririk Moisesen katedran edo xaserlekiuan:
3. Kunpli zazei bada eta egin zazei erran dalezazein guziua; baya etzazei neur xen bizi moldia enarnaz, zeren ek erraiten baitei egin biar dena, eta ez dei egiten.
4. Agitan dena da, faiten drela biltan edo mokorkatan karga pezatiuak eta soporta ezdeitekenak, eta izartan tei berzen soinetan edo espaldetan, berek nai ezdeinian eztere arrimatu eripunta mobiaraztako.
5. Beren obra guziuak egitan tei izan tian ekusirik gizonetaz; beragatik eramaiten tei Legiaren eliak estanpa zabalaguetan; eta luziago beten beztiduen franjak edo atzekuak.
6. Maitatan tei ere lein xaserlekiuak konbitetan, eta lein sillak sinagogetan;

7. eta izaitia salutatrak plaztan, eta gizonek emon dazabein Maixtro edo Dotorek tratamentia.
8. Xek al rebes nai etzei ekun biar izan tratatrak Maistrotako; zerengatik bat solo baita xen Maistrua, eta xek guziua zrei anaxe.
9. Eztare afizionerik etzei ekun biar deitako ñonire lurraren gainian xen Aita; bada bat solo da xen zeurian dagon egiazko Aita.
10. Eta etzei zer presumitu izaitia deitruk Maistruak; zeren Kristua baita xen Maistro bakotxa.
11. Azkenik, xen artian andienak biar du izan xentako ministro edo zerbutxari.
12. Zeren ensalza ledina izanen da umildiatruk; eta umildi ledina izanen da ensaltatrak.
13. Baya ¡a xetaz, eskribain eta fariseo ipokritak! Zerratan baitzei zeurien reinua gizoner; zeren xek ezrei sartan, eztare etzei eitzan sartra sar al zaiztekener; ezdauzeilarik eitzan xinets tzein Nitán.
14. ¡Ay xetaz, eskribain eta fariseo ipokritak! deboratan baitzei alargunen etsiak, orazione luze egiteko pretestorekin: korrengatik errezibiten tzei anitx obro errigoretako sententzia.
15. ¡Ay xetax, eskribain eta fariseo, ipokresiaz betiak! Zeren erabiltan baizrei itxasoz eta lurrez konberti tzazein ber jentil bat; eta konbertituz geroz, egiten dauzei xaurien ejemploa edo dotrinarekin, iburniaz dino bi aldiz xen bein obro.
16. ¡Ay xetax giazale edo dirijizale utsiak, erraiten tzeinak: juramentu egitia batek tenpluaz, deus ezda, ezdu obligatan; baya juramentu egiten dionak tenpluaren urriaz, obligatrak dago!
17. ¡Talentu bage eta utsiak! ¿zoinak balio du obro, urriak, edo tenpluak urriari santificatan dionak?
18. Eta norbaitek (erraitan tzei) altariaz juramentu egiten badu, ezdu inportanziarik; baya juramentu egin lezanak oberta aren gainian ixariaz, egiten da zordun.
19. ¡Utsiak! ¿Zerek balio du obro, obertak, ala altariak baita oberta santificatan diona?
20. Nornaidenek bada juramento egin tzan altariaz, berartaz juramentu egiten du, eta aren gainian gaiza ixartan dren guziuetaz;
21. eta juramentu egiten dionak Tenpluataz, berartaz juramento egiten du eta Jain artan egoitia dion kartaz;
22. eta juramentu egiten dionak zeuriaz edo zeuriataz, juramentu egiten du Jangeikuaren tronuaz, eta artan xaseririk dagon kartaz.
23. ¡Ay xetaz, eskribain eta fariseo ipokritak! pakatan txeinak dekumak aiketa belar onarnak eta sonto belararnak eta kominuarnak, eta abandonatu ditzei legiaren gaiza prezisuenak edo prinzipalenak; justizia, miseriakordia eta fede ona! Kuek biar zinein kunplitu, kurak eitzi bage edo eitzi bagetarik.
24. Dirijizale utsiak, iraztan baitzei edaten tzein guziua, badagonez zomait muxkito, eta traga edo ingullitan tzei kamello bat.
25. ¡Ay xetaz, legiaren erakuszale eta fariseo ipokritak! xaintan tzeinak kanpuarako altetik basua eta platera; eta barneko altetik, biotzian, zaudei beterik rapazidadez eta zikinguz.
26. Fariseo utsia, xain ditzazu lein barnetik basua eta platera, nai batzu kanpokua izan dein xain.

27. ¡Ay xetaz, eskribain eta fariseo ipokritak! Zeren baizrei asemejatrak sepultura xuritruk daudener, zoinek kanpoko altetik urdu baitei pollit gizoner, baya barnekotik daude beterik il drenen ezurrez, eta korronpitarzun kasta guzuz!

28. Gisa berian xek ere kanpotik mostratan zrei gizoner zrela justo, baya barnetik zaudei ipokresiaz eta inikidadez beterik.

29. ¡Ay xetaz, eskribain eta fariseo ipokritak! fabrikatan baitzei profeteen sepulturak, eta adornatan justuen molumentuak!

30. eta erraiten baitzei: bizi izan bagintz giauren aiten tenpran, ez gintzen izanen beren gaxtakidiak profeteen ilgiuan.

31. Zoinekin emoitan tzei testimonio xaurberien kontra, zreila profeten iltzaleen seme, edo profeten iltzale izan zrenen seme.

32. Akaba zazei bada betetiaz xen aiten neurria, ilaraztan tzeilarik Mesiasari.

33. ¡O suge kasta, biborazko erraza! ¿nola izanen da posible ebita ztein izaitiaz kondenatrak iburniko suara?

34. Zeren txezei ni faiten nazala xer oiltra profeta, eta sabio, eta legiaren erakutsdun, eta etarik degollaten tzei baner, kurzifikaten txei berze banek, berze baner azotaten tzei, xaurien sinagogetan, eta erabilen ditzei persegituz ziudade batarik berziara;

35. eror dein xaurien gain odol inozente usuri den guziua lurraren gainian, Abel justuaren odoletik astian, aiketa Zakarias, Barakiasen semiaren odola bitartio, zointa il baizinein tenploaren eta altariaren artian.

36. Egiaz erraiten daizeid, gaiza kuek guziua xinen drela erortra presenteko jeneraziaren gain.

37. ¡Jerusalen! ¡Jerusalen! iltan baidutzu profetak eta arrikaldikatan zoregana oiltruk drener! ¿Zomat aldiz nai ekuntu nion biltu edo mokorkatu zore semiak, olluak mokorkatan tion bikala bere txitxaxkuak magalen pean, eta zuk etzu nay ekuntu?

38. Ona bada xen etsia duala baratra utsirik edo desierto bat.

39. Eta kola erraiten daizeid: xa sarri edo bertan ez naizen ekusen obro aiketa, izaguntan nai nizeilarik Mesiasako, erran zazein bitartio: Benedikatrak izan deila xiten dena Jeinaren izenian.

*OGEI TA LAURGARNEN KAPITULUA. Antzinetik erraiten du Jesusek Jerusalem eta tenpluaren desegingia eta anunziatan du bere diszipuluer agitu biar ziona ebanjeliuaren promulgazionaren tenpran, eta beraren bigarnen xitian. Enkargatan dabei egon tiala betik bijilanzia edo kuidamenturekin, aren bigarnen xitiak ez dazabein arrapa edo erden deskuidatrak.*

1. Erkinik Jesus tenplotik, faiten zen xa erabiliz, eltu zaizkionian bere diszipuluak kaso eginaraztako tenploaren fabrikan.

2. Baya ark erran zabein: ¿Ekustan tzeya fabrika andi kaur guziua? Bada nik erraiten daizeid ziertoki ez dela baraten artarik arririk bata berziaren gainian.

3. Eta zegolarik gero, xaseririk olibareko mendian eltu zren diszipuluetarik zomait eta galtegin zabein sekretoki: Erran dazaiguzu, ¿Noiz agiten da kori? ¿Eta zoin izanen da zore xitiaren señalía eta mundiuaren akabantxarna?

4. Zoini Jesusek erresponditu zabein: Mira zazei ñork ere ez dazazeila engaña.

5. Zeren anitxek xin biar baitei ene izenian, erraiten: Ni naz Kristua edo Mesiasa; eta seduziten dei gente anitxi.

6. Entzunen tzei gisa berian, batallen notiziak eta gerrazko rumoriak, eziztei turba korrengatik, zeren xin biar ekunik ere antzinetik gaiza kuek, ezda oraino ere kaur akabantxa.
7. Egia da armaten dela nazionia nazioniaren kontra, eta reino bat berze reino baten kontra; eta agiten drela peste eta gose, eta lur ikareria difrente edo anitx lekutan.
8. Baya kaur guziua orainere ez da beizik gatxen prinzipiua.
9. Tenpra kartan izanen zrei entregatrak majistratiuer izaiteko isaririk tormentiuetan, eta emonen daizei muertia, eta izanen zrei aborritruk gente guziueganik ene izenaren kaso, ene diszipuluak zreilakoz.
10. Zoinekin anitxek padeziten dei gunian eskandalo, eta eginen dra traizione bata berzer, eta ugunten dra alkar.
11. Eta agerten dra profeta falsu numero anditan, perbertiten baitei gente anitxi.
12. Eta biziuen inundazioren edo abundanziaren kausaz, otzten da anitxen karitatia.
13. Baya persebera ledina azken ordiuarartio, kori salbaten da.
14. Bitartio predikaten da Jangeikuaren reinuaren ebanjelio kaur mundo guzian, testimoniotan nazione guziuen, eta gunian xinen da akabantxa.
15. Segun kaur, ekusen tzeinian dagola establezitruk leku saintiuan abominazione desolazalia, erran ziona antzinetik Daniel Profetak (lei tzanak kaur, adberti tzala onki):
16. tranze kartan daudenak Judean, ezkapa tiala mendietra;
17. eta dagona tejuduan ez deila xatx edo sar ez deila gaiza erkitra bere etsetik;
18. eta erdeiten dena alorrian, ez teila utzul bere tunika edo arroparen artra.
19. ¡Baya ay zintan edo aztan daudenetaz, eta inesi ez deiztekenian arin egun ketan!
20. Otoi bada, eska ztei Jangeikuari, xen inestia ez deila izan negiuan edo neskanegunian, noizta erabil baidaiteke txiki.
21. Zeren izanen baita gunian kain terrible tribulazionia nola ez baizen izan kalakorik astian mundiuaren prinzipiotik presentiarra bitartio, ez sekulare ez izanen.
22. Eta ez balite llabur egun kurak, ñorere ezeitekian salba; baya biar dei izan abrebiatrak eskojituen amorioz.
23. Kalako tenpran, norbaitek erraiten baidaizei: Kristoa edo Mesiasa dago kemen edo kan, ez dazazei xinets.
24. Zeren apareziten baidra Kristo falsiuk eta profeta falsiuk, eta eginen dei alarde marabilla eta prodijio anditaz, kalako maneran, baita eskojitiuk ere, izaitian posible, eroren baizren utsian edo gezurrian.
25. Eta ekusten tzei, antzinetik abisatu daizeidala edo erran daizeidala.
26. Kola erran dazaizeinian ere: txezei kemen Mesiasa dagola desiartuan, ez ztei fan kara; edo berzala: Mira zazei dagola etsiaren parte barnagokuan, etzazei xinets.
27. Zeren inaztura erkitan den gisa iguskiaren erkingutik eta eiztan ekusirik izan dein instante batez sargiuara bitartio, kola izanen da gizonaren Semiaren abentia edo xitia.
28. Eta nonnaiden egon ledin edo egon zedin korpiza, kan xuntaten dra agilak.
29. Baya egun ketako tribulazionia igari bertan geroz iguzkia ulunten da, goikuak ez du argiten, eta izarrak eroren dra zeuritik, eta zeurien birtutiak edo ainguriuk izaren dra ikarez.

30. Gunian apareziten da zeurian gizonaren Semiaren señaia, zoinen ekustiari lureko iri guziuek nexar eginen dei marraz; eta ekusen dei xitan gizonaren Semia zeuri odei resplandezitan dein gainian poder eta majestade andirekin.
31. Zoinnek oilten tu bere ainguriuak, zeinek tronpeta sobresalitu baten soiniuara, bilten tei aren eskojitiuak, mundiuaren laur partetakuak, zeuriko orizonte batarik berziarartio.
32. Ar zazei konparazione kaur erkinik figozko alboetik: Bere adarrak daudenian xa tierno, eta erkiten drenian ostuak, izaguntan tzei abaño dagola uda:
33. Bada kala ere, xek ekus zinezeinian gaiza kuek guziuak, ekun zazei ziertotako xa gizonaren Semia dagola eltako abantxu; dagola xa bortan.
34. Aseguratan daizeidana da, eztela akabaten jenerazione kaur aiketa kaur guziua kunpli dein bitartio.
35. Zeuria eta lurra igaren dra; baya ene eliak edo itzak eztra faltaten.
36. Baya egunaren eta ordiuaren gain edo ordiuan dela kaso, ñork ere ez daki, ez zeuriko ainguriuek ere, baizik solo ene Aitak.
37. Agitu zena Noeren egunetan, kori bera gizonaren Semiaren xitian agiten da.
38. Zeren kain nola dilubiuaren antzineko egunetan prosegitan baizren gizonak xaten eta edaten, bordaltuz berak eta bordalaraztan beren semer, aiketa Noe arkara sartu zen egun beriaraino.
39. eta ezein pensatu ñoiz ere dilubiuaren ekusi zein bitartio asirik, eta arrapatu ztiola guziuer; kala agiten da gizonaren Semiaren xitian.
40. Gunian bi gizon egonen drenetarik xunto alurrian, bata izanen da artruk edo libertatruk, eta berzia eitzruk edo abandonatruk.
41. Egonen dra bi emazte errota batian eyotan, eta bata izanen da artruk edo salbaten da, eta berzia eitzruk, eta galten da.
42. Bijila zazei bada xek, yaketa ez baidakizei zer orduz xinen den xen Jeina,
43. Egon ztei xakinik, aita familiadun batek balaki zer ordutan biar zaun akometitu ladronak egonen zen seguroki bijilatan eta ezion eitzen etsia minatra.
44. Kala bada xek egon ztei gisa berian prebenitruk, zeren ordu txikien pensatan tzeinian xinen baita gizonaren Semia.
45. ¿Nor pensatan tzei dela fiel eta prudente sierboa edo zerbutxaria, nombratruk edo izaririk bere Jeinaganik bere familiaren rmayordomotako erreparti tzan bapanari alimentiua bere tenpran?
46. Bienabenturatu kalako zerbutxaria, zoini xiten denian bere Jeina, erden lezaun kunplitan kola bere obligazionia.
47. Egiaz erraiten daizeid eitzen daula bere gain bere azienda guziuaren enkomendiua edo gobierniua.
48. Baya sierbo kaur gaxto izan baledi, edo erran baleza bere biotzian: Ene nausia ez da edo ezta xiten kain fite;
49. eta konekin as baledi gaxki tratatra bere zerbutxari laguner, eta xatra eta edatra ordiekin,
50. Xinen da kolako zerbutxariaren nausia orkitan ezion egunian, eta ordu txikien pensatan dionian.
51. eta egotxen dau ordu gaxtotan, eta emonen dau gaxtigu ipokriter eta zerbutxari gaxtuer emoitan dena; kan izanen da nexar eta ortzez garraska egitia.

OGEI TA BORZGARNEN KAPITULUA. *Amar Berjinen eta talentuen parabolak; zeinetan Jesusek manatan du egoitia bijilanzian eta ejerzitatia obra onak, ez gitian izan kondenatruk bere bigarnen xitian eta azken juiziuari.*

1. Gunion zeurien reinua izanen da semejatrak amar berjini zeinek artan zteilarik beren lanparak, erkin zren esposua eta esposaren errezibitra.
2. Zeinetarik borz zren talentu bage dun, eta borz prudente.
3. Baya borz talentu bagedunak, artian beren lanparak, ezein orio probisionerik egin:
4. al rebes, prudentek lanparekin batian eraman zein orio beren ontzietan.
5. Nola esposuak berantan baizion xitiaz, loak artu zren guziuak eta azkenian baratu zren lo.
6. Baya eltruk gaiardia entzun izan zen mintzo bat irago egiten baizion: txezei xiten dela esposua, erkin zaizkei errezibitra.
7. Instantian berjin kurak guziuak xagi zren eta adrezatu ztein beren lanparak.
8. Gunion talento bage dunek erran zein prudenter: Emon dazaiguzei xaurien oriotik zeren gore lanparak iltan baitra.
9. Erresponditu zein prudentek erraiten: Ez deila agi guk digun kaur ez deila aski izan goretako eta xentako; obe da fan ztein saltan deinengana eta eros zazein falta zaizeina.
10. Kuek oriuren erostra faiten zren arte kartan, xin zen esposua; eta preparatrak zaudenak sartu zren arekin ezteyera, eta zerratrak izan zen borta.
11. Geruago xin zren ere berze berjinak erranez: ¡Jeina! ¡Jeina! Iriki dazaguzu.
12. Baya ark erresponditu zion eta erran: Egiaz erraiten daizeid nik ez daizeidla izaguntan.
13. Kola bada, bijila zazei xek, yaketa ez badakizei ez eguna ez ordiua.
14. Zeren Jeinak obraten baitu gizon batek bikala zoinek, faiten zelarik erri urrintra, xuntatu baizion zerbutxariak eta entregatu zabein bere ontarzunak,
15. emoitien bati borz talento edo deuri, berze bati bi, eta bat solo berziago bati, bapanari bere kapazidadiari konforme, eta jesugian fan zen.
16. Errezibitu zionak borz deuri, fan zen, eta negoziatan ziolarik berekin, erkin ztion gananziatan berze borz.
17. Gisa berian, bi errezibitu zion kark, irabazi zion berze bi.
18. Baya errezibitu zionak bat, fan zen eta egin zion zilo bat lurrian, eta altxatu zion bere nausiaren deuria.
19. tenpra anitxen buriuan bueltatu zen zerbutxari nonbratu drenen nausia, eta deitu ztion kontiuen emoitira.
20. Eltan zelarik errezibitu zionak borz deuri, presentatu zaun berze borz erraiten: Jeina, borz deuri entregatu zinaitadan, ona kemen berze borz obro irabazi baidutur ekin edo kekin.
21. Erresponditu zaun bere nausiak: Anitx onki, zerbutxari ona, zerbutxari dilijente eta leala; yaketa izan baizra fiel gaiza txikian, nik konfiaten daizud anitxtako den gisa: xin zte parte ekutra zore jeinaren gozuan.
22. Eltu zen bi deuri errezibitu zionak, eta erran zion: Jeina, bi deuri emon zinaitadan; kemen eragutan daizud berze bi irabazi baidutur kekin.
23. Erran zaun bere nausiak: Anitx onki, sierbo on eta fiela; izan zra bada fiel gaiza txikitan, nik konfiaten daizud anitx obro; xin zte partizipatra zore jeinaren gozuaz.

24. Azkenik, eltian errezipitu zionak deuri bakotz bat, erran zion: nik dakiez zrela kondizione gogortako gizon bat, egitatan baitzu erin etzun lekiuan, eta biltzan baitzu barriatu etzun lekiuan;
25. eta kala, lotsaz galten niola, fan nuntzun eta altxatu nizun zore deuria lurrian: kemen tzu zoria dena.
26. Baya bere nausiak, biltan zaularik elia, erreplikatu zaun eta erran: ¡O zerbutxari gaixtua eta perezosua! Yik yakion nik egitatan duala eritari ezduan lekiuan, eta biltan duala non deus ezduan erin!
27. Bada korrengatik ber biar emon ekuntu yon bankeruer ene deuria, nik bueltatian kupra nezan ñore interesa gananziekin.
28. Ea bada, gen dazazei deuri kura, eta emon dauzazei amar deuri dionari.
29. zeren dionari emonen zau eta egonen da abundatruk edo sobratruk; baya ezdionari, biar zau gentu, orainore urdu dion dakan kura.
30. Orai, bada, zerbutxari inutil kori egotx zazei kanpoko ulunguetra: kor izanen da nexar eta ortzez garraska egitia.
31. Xiten denian bada gizonaren Semia bere majestade guziuarekin, eta akonpañatruk bere ainguru guziuetaz, xaseren da gunian bere gloriaren tronuan.
32. Eta eginen du presentatian aren antzinian nazione guziuak; eta berexen tu banak berzetarik, artzainak berexetan tion gisa ardiak añetarik;
33. izartan tiolarik ardiak bere eskoinara, eta añiak ezkerriara.
34. Gunian erregek erranen du egonen drener aren eskoinara: Xin ztei ene Aitaren benedikatiuak, posesione artra reinu zelestialaz, preparatruk dakauzeina mundiuaren prinzipiuadanik.
35. Zeren nik ekun bainion gose eta emon zinaitein xatra; ekun nion egarri, eta emon zinaitein edatra; nintzen pelegriño, eta ostatu emon zinaitein;
36. bilainzruk nintzelarik, tapatu edo estaltu nindaizein; enkarzelatruk, eta xin zinaikein ekustra eta konsolatra.
37. Zoini justuek erresponditen dabei, erranez: Jeina, ¿noiz ekusi ginaizun gosez eta emon ginaizun xatra, egarriz eta emon ginaizun edatra?
38. ¿Noiz erden ginaizun pelegriño eta emon ginaizun ostatu, bilainzruk eta bestitu ginaizun?
39. Edo ¿noiz ekusi ginaizun eri edo karzelian eta fan ginaizun ekustra edo bisitatra?
40. Eta erregek edo erregiak errespuestatan erranen dabei: Egiaz erraiten daizeid: kaur egin zinein aldi oroz ene anaxe kuen txikerrenen zomaitekin, enekin egin zinein.
41. Tenpra berian erranen du ezkerriara egonen drener: Aparta ztei nitarik, edo aparta zteikida, maradikatiuak: ortzei sekulako suara, zoin izan baizen destinatruk diabiuaeren eta bere ainguriuen edo zerbutxarien.
42. Zeren ekun bainion gose eta ezinaitein emon xatra; egarri eta ezinaitein emon edatra;
43. Nintzen pelegriño eta ez nindizein biltu; bilainzruk eta ez nindizein beztitu; eri eta enkarzelatruk eta ez nindizein xin ekustra.
44. Zoini erreplikaten dei ere gaxtuek: ¡Jeina! ¿noiz ekusi ginaizun gosez, edo egarriz, edo pelegriño, edo bilainzruk, edo eri edo enkarzelatruk, eta eitzi ginaizun asistitiaz?
45. Gunian erresponditen dabei: Erraiten daizeid egiaz: eitzi zinein aldi oro egitiaz ene anaxe kuen txikerrenen zomaitekin, eitzi zinein egitiaz Enekin.
46. Eta konengatik fanen dra kuek sekulako supliziua, eta justuak sekulako biziara.



OGEI TA SEIGARNEN KAPITULUA. *Jesusen aigaria Betanian, non emazte batek usurtan baitu balsamu Aren gainian. Bazkuako axuriaren aigaria Jerusalemen, zointan mintzatan da Judasen traizioniaz edo Judasen traizionaren gainian, Eukaristiaren instituzionia. Jesusen prisionia, eta Sinedrioaren sententzia aren kontra. San Pedroren ukamentiauk, eta penitentzia.*

1. Eta agitu zen, akabatuz geroz Jesusek diskurrimentu kuek oro, erran ziola bere diszipuluer:
2. Onki dakizei, kementik bi egunen burian, zeledatu biar dela Bazkua, eta gizonaren Semia izanen dela entregatruk krutxian iltra.
3. Tenpra berian xuntatu zren sazerdotien prinzipiak eta iriaren majistratiuak pontifize Andienaren, Kaifas deitan zenaren palaziu.
4. eta ekun zein konzeju erdeiteko medio zointaz apoderaten zren mañarekin Jesustaz, eta ilarazen zein.
5. Eta lotsaz alborotaten zela iria, erraiten zein: Ezda konbeni egin dein kaur xei egunian.
6. Zegolarik Jesus Betanian, Simon Leprosuaren etsen.
7. Eltu zen Arengana emazte bat alabastrozko baso batekin, beterik prezio anditako perfumez edo unguentoz, eta usuri zion Jesusen buriaren gainian, zointa baizagon mayan.
8. Diszipuluetarik zomaitek, ekustian kaur, artu zein anitx gaxkitako, erraiten: ¿Zertra desperdizio edo galtakeria kaur,
9. prezio anditan al ekuntu zenian kaur saltu, eta emon pobrer?
10. Zoin entelegatian Jesusek erran zabein: ¿Zeren molestatan tzei emazte kaur, eta gaxtra artan tzei egiten diona; izaitian on, dena gisa, obra egin diona Enekin?
11. Bada pobriak dazkazei betik eskiuara; baya ni ez nakazei betik,
12. eta usurtian ark balsamu kaur ene korpizen gainian, egin du disponetako gisa antzinetik ene sepultura.
13. Egiaz erraiten daizeid: non naiden predika dein Ebanjelio kaur, izanen baita mundu guzutik, zeledaten dela ere aren memorian akabatan diona egitiaz.
14. Gunian Judas Iskariote, amabietarik bat, fan zen egoitra sazerdoten prinzipalekin, eta erran zabein:
15. ¿Zer nai daitazeid emon, eta nik izaren daidazei xen eskiuetan? Eta konbenitu zren arekin ogeitamar zidarrezko deuritan.
16. Eta guniaz geroz erabiltan zen txerkatan okasione favorable bat traizionia egiteko, edo traizioniarene egiteko.
17. Gainian zagolarik orantz bagiaren lein eguna, akuditu zein diszipuluek Jesusengana eta galtegin zabein: ¿Non nai tzu disponi dazaiguzun bazkuako aigaria?
18. Jesusek erresponditu zabein: fan ztei zitudadiara, kalako personaren etsiara, eta emon dazazei arrakaitu kaur: Maistruak erraiten du: Ene tenpra abañatan da: zeledatratra nua zore etsen bazkua Ene diszipuluekin.
19. Egin zein bada diszipuluek Jesusek manatu zabeina, eta preparatu edo drezatu zein biar zena bazkuarako edo bazkuako.
20. Iguzkia xa sartruk, izari zen mayara bere amabi diszipuluekin;

21. eta zagolarik xa xaten, erran zion: Egiaz erraiten daizeid xetarik batek eginen daitadala traizione.
22. Eta ek, afljitrak sobraino edo manera anditan, asi zren galtegitra bapanak beraren partez: ¿Jeina! ni naza ote?
23. eta Ark errespuestatan erran zion: sartan dionak Enekin bere eskiua platerian ogia bustitako, da traidora edo traizionen engulia.
24. Gizonaren Semiari dena kaso, Ura faiten da, Artaz eskiribitruk dagon bikala; baya jau gizon kartaz zoinenganik gizonaren Semia entregatruk izanen baita; obe izan lekion kalakuari ezbalitz sekula ere sortu!
25. Eta artan ziolarik elia Judasek, baizen entregatan zaunak, erran zion: ¿Ni naza akaso, Maistrua? Eta Jesusek erresponditu zaun: Zuk erran tzu: zu zra.
26. Aigaltan zauden artian, artu zion Jesusek ogia eta bendezitu edo benedikatu zion eta partitu, eta emon zabein bere diszipuluer erranez: Oriey eta xan zazei: kaur da ene korpiza.
27. Eta artan ziolarik kaliza emon zion graziak, benekikatu zion eta emon zabein, erranez: edan zazei guziuak artarik;
28. zeren kaur baita ene odola, zoin emonen baita testamento berriaren sellua, zointa izanen baita usuririk anitxengatik bekatiuen parkamentutako.
29. Eta deklaratan daizeid ezduala edo eztuala edanen xa oraydanik mats zepa frutu kontarik, aiketa egun zointan edan txadan bitartio xekin deliziazko kaliz berritik ene Aitaren reinuan.
30. Eta erranik grazien emoitako innua, erkin zren olibuen mendi altiara.
31. Gunian erraiten dabei Jesusek: Xek guziuek padeziten tzei eskandalo gaur Ene okasionez, eta abandonaten naizei. Zeren eskiribitruk baitago: Eriten dur artzaina eta inesten dra saldoko ardiak.
32. Baya erresuzitatiarekin Ni fanen naz xen antzinetik Galilean, nonta bueltaten daizei xuntatra.
33. Pedrok erresponditan zaularik erran zaun: Oraino guziuak eskandaliza litian ere zore kausaz, ñoiz sekula ere ez nuzu eskandalizaten ni, ez daizud edo eztaizud ere abandonaten.
34. Erreplikatu zaun Jesusek: Bada Nik aseguratzen daizud egia guziuarekin, gai kontan berian, lein ezik ollarrak kanta tzan, arnegaten tziula Nitaz iror aldiz.
35. Zoini erran zion Pedrok: Aunke preziso izan daitadala iltia zorekin, nik ez daizud ukaten. Kori bera prometitu zein diszipulu guziuek.
36. Arte kartan eltu zen Jesus berekin granja edo baratze batra baizion izenez Getsemani, eta erran zabein: Xaser ztei kemen, Ni karatago faiten nazan arte kontan eta orazione egiten duan bitartio.
37. Eta eramaiten ztiolarik berarekin Pedro eta Zebedeoren bi semiak, Santiago eta Juan, asi zen ekuera tristuria eta agonia.
38. Eta erran zabein gunian: Ene arimak senditan tu agonia mortalak: orki zazei kemen eta bijila zazei enekin.
39. Eta antzinatan zelarrik zomait pasuz edo urratzez postratu zen lurrian eroririk aua barna, orazione egiten eta erraiten: Ene Aita, posible bada ez daitazud edanaraz kaliz kaur; baya kalarik ere ez deila egin Nik nai duana, beizik nai tziuana Zuk.
40. Utzuli zen gero bere diszipuluengana eta erden ztion loak artruk; eta erran zion Pedrori: ¿Posible dia etzeila al ekuntu bijila oren bat enekin?

41. Bijila eta orazione egin zazei eziztiain eror tentazionian. Bada espiiritua egonik ere alert, aragia dago flako.
42. Utzuli zen berriz bigarna aldiz, eta orazione egin zion erranez: Ene Aita, ez badaiteke igar kaliz kaur Nik edan tzadan bage, egin deila zore borontatia.
43. Emon zion gero berze buelta bat, eta erden ztion loak artruk, zeren beren begiak baizauden looz beterik.
44. Eta eiztan ztiolarik, erretiratu zen orainore orazione egitra irorgarnen aldiz, errepetitan ztiolarik ele berak.
45. Desegida bueltatu zen bere diszipuluengana, eta erran zabein: Lo egin zazei oray eta deskansa zazei: Txezei eltu dela xa ordiua, eta gizonaren Semia duala bertan izaitra entregatruk bekatarien eskiuetan.
46. ¡Os bada!, azka ztei edo xagi ztei, fan gitian kementik; eltan da xa Ni entregaten nai nion kura.
47. Oraino akabatu ez zien kaur erraitiaz, eltu zenian Judas, amabietarik bat, xarrekitruk gente multitud andi bataz armatruk ezpata eta makilarekin, xiten baizren oiltruk sazerdotien prinzipalen eta iriaren anziano edo senadorenganik edo ordenuz.
48. Traidorak emon zabein señaile kaur: Zointan nik bixiko emoitan duanari, kori da: asegura zazei.
49. Arrimatan zelarik bada bertan Jesusengana, erran zion: Maistrua, Jangeikua salba zitzala; eta bixiko emon zaun.
50. Erran zaun Jesusek: ¡O, adexkidia!, ¿zertra xin zra kona? Eltu zren gunian berziak, eta egotxi zen eskiua Jesusi eta preso egin zein.
51. Eta nonta Jesusekin zaudenatarik batek, erkiten ztiolarik ezpata eritu zion sazerdotien prinzipalaren zerbutxari mitil bati, ebakitan zaularik biarri bat.
52. Gunian Jesusek erran zaun: Buelta zazu zore ezpata bainara, zeren zerbutxa ledin guziuak ezpatatz bere autoritate propioz, ezpatatz ilen dra.
53. ¿Pensatan tziua enaitekela akudi ñore Aitarengana, eta ez diola izaren instantian ene dispozizionian amabi beino obro ainguruzko lejjone?
54. Baya ¿Nola kunpliten dra Eskriturak, zeinen erraitiari konbeni baita agi dein kala?
55. Ordu kartan erran zion Jesusek gente tropel kari: Ladron edo asesino baten kontra bikala erkin zrei ezpata eta makilekin niri preso egitra: egun oro nintzen edo nintzegon xaseririk xen artian erakustan tenpluan eta ñoiz ere enintzizein preso egin.
56. Egia da kaur guziua agitu dela kunplitian profeten eskriturak, Gunian diszipulo guziuak abandonatan zabeilarik, ezkapatu zren.
57. Eta preso egin zeinek Jesusi, eraman zabein Kaifasen etsiara, zointa baizen pontifize urte kartan, nonta eskribainak eta Zarrak baizauden xuntatruk.
58. Eta Pedro faiten zitzaun xarrekituz urrinki eltu zen artio pontifize Andienaren palazioara. Eta sartu zelarik, zagon xaseririk zerbutxariekin ekusteko zertan baratan zen kaur guziua.
59. Bada sazerdotien prinzipiak eta konzilio edo konzeju guziua erabiltan zen txerkatan zomait testimonio falsu Jesusen kontra kondena lezabein iltra.
60. eta ezabein erdeiten testimonio sufizienterik kontako, nola naiden testigo falsu anitx presentatruk izan zrelarik. Azkenik edo ondorian aparezitu zren bi testigo falsu.
61. eta erran zein: konek erran zion: Nik desegin doked Jangeikuaren tenplua, eta buelta edifikatra iror egunez.

62. Gunian izartan zelarik txutirik sazerdotien Andiena, erran zaun: ¿Etziua deus erresponditan erraiten deinari kuek zore kontra?
63. Baya Jesus prosegitan zen ixilik. Eta erran zaun sazerdotien Andienak: Nik konjuratan daizud Jangeiko biziaren partez erran dazaiguzula zu zrenez Kristoa edo Mesiasa, Jangeikuaren Semia.
64. Erresponditu zaun Jesusek: Zuk erran tzu: Ni naz. Eta orainore deklaratan daizeid, ekusen zteila gero gizonaren Seme koni, antzinian tzeina, xaseririk Jangeikuaren Majestadiaren eskoinara, xiten zeuriko odeyen gainian.
65. Kalako errespuesta entzutian, sazerdotien Andienak urratu ztion bere beztidurak, erraiten: Blasfematu du: ¿Zer nestate digu xa testigotaz? Xauriek akabatan tzei entzutiaz blasfemia zoinekin bera egitan den Jangeikuaren Seme.
66. ¿Zer urdu zaizei? Zoini ek erresponditu zein, erranez: Reo da ilik izaiteko.
67. Bertan asi zren ari txuk egoxtra begitartian eta gaixki tratatra puñutikaldika; eta berze banek, bendatu zabeilarik geroz begiak, abofetiatan zabein, edo maxelakaldikatan zein.
68. erraiten, Kristoa, profetiza zaiguzu, adibina zazu: ¿nor da eritu daizuna?
69. Arte kartan Pedro zagon xaseririk kanpo atriuan; eta abañatan zelarik ari neska bat, erran zaun: Bai zu ere zinabiltzan Jesus galileo-arekin.
70. Baya ark ukatu zion guziuen antzinian erranez: Nik ezdakiez zertaz mintzatan zren.
71. Eta erkiten zelarik ura portikuara edo bortaz kanpo, beira egin zaun berze neska batek, eta erran zabein kan zaudener: Bai kaur ere zegon Jesus Nazarenuarekin.
72. Eta ukatu zion bigarnen aldiz afirmatan juramentorekin: Ez dur izaguntan kalako gizona.
73. Baya gero bertan abañatu zren unguriuan zaudenak, eta erran zabein Pedrori: Seguroki zra zu etarik ere, zeren galileako zore mintza molde berak, deskubritan baidaizu, edo deskubritan baiztu.
74. Gunian asi zen egoxtan bere gain maldizione, eta erraiten juramentorekin eziola izaguntu kalako gizona: Eta instantian kantatu zion ollarrak.
75. Konekin quartu zen Pedro Jesusek erran zaun proposizioniaz: Ollarrak kanta zan beino lein, arnegaten zu Nitaz iror aldiz. Eta erkiten zelarik kanpo nexar egin zion amargoki.

**OGEI ETA ZAZPIGARNEN KAPITULUA.** *Judas urkatan da. Jesus da azotatruk, eskarnezitruk, kruzifikatruk eta blasfematruk. Prodigio agitu zrenek bere iltian: da sepultatruk, eta aren sepulkrua señalatruk eta guardatruk.*

1. Eltu baikoz goxa, sazerdotien prinzipale guziuak eta iriko Zarrek ekun zein konzeju Jesusen kontra ilaraztako.
2. Eta deklaratan zabeilarik ilik izaiteko reo, eraman zabein lotruk eta entregatu presidentiari edo gobernazaliari, baizen Ponzio Pilatos.
3. Gunian Judas, entregatu zaunak, ekustian Jesusi sentenziatruk; arrepenitruk egin zionaz, restituitu ztion ogeitamar zidarrezko deuriuak sazerdotien prinziper eta Anzianuer, erraiten:
4. Nik bekatu egin dur, bada saltu dur odol inozentia: Zoini erran zein ek: Guri ¿Zer inporta zaigu? Kan konpon zte.

5. Baya ura, arrojatan ziolarik deuria edo deirua tenpluan, fan zen eta egozten ziolarik bere buruari lazada bai, urkatu zen.
6. Baya sazerdotien prinzippek, biltu baikoz deuriak, erran zein: Ezta lizito sar ditzagun tenpluaren tesorean, izaitian drena gisa odolaren saria;
7. eta tratatuz geroz konzejuan, erosi zein ekin ontziegile baten alorra estranjeruen sepulturatako.
8. Zoinengatik deitu zen alor erran dena Hazeldama, nai baitu erran, odolaren alorra, eta kola deitan da egunko egunian.
9. Zoinekin xin zen kunplitra erran ziona antzinetik profeta Jeremiasek, erraiten baitu: Errezibitu dei zidarrezko ogeitamar deiriuk, saltako izari zenaren saria, segunta izan baizen baluratrak Isrraeleko semenganik;
10. eta enpleatu ztein ontzi egile baten alorraren erostian, manatu nindion bikala Jeinak.
11. Izan zen bada Jesus presentatrak Presidentiaren antzinian, eta Presidentiak galtegin zaun erranez: ¿Zu zreya judiuen erregia? Eresponditu zaun Jesusek: Zuk erraiten tzu: Ni nuzu.
12. Eta obruago akusatan zabeilarik ere sazerdotien prinzippek eta zarrek, deus ezion erresponditu.
13. Zoinengatik Pilatosek erran zaun: Etziua entzuten zomait gaizataz akusatan daizein?
14. Arek ez deusi ezion erresponditu erran zaun edo erran zazkan guziuetaz; manera kalakuari baratu baizen Presidentia ezin obro marabillatrak.
15. Kostumbre zion Presidentiak konzeditia, bazko xeyaren kausaz, libertadia reo bati, iriak eskojitu nai zionari.
16. eta nola baizakan okasione kartan karzelian fama anditako bat, izenez ziona Barrabas,
17. galtegin zion Pilatosek xuntatu zrener: ¿Nori nai tzei solta dazaizein Barrabasi, edo Jesusi, zoini deitan baitabei Kristua edo Mesiasa?
18. Zeren baizakion onki entregatu zabeila sazerdotien prinzippek inbidiaz.
19. Eta zagolarik ura xaseririk bere tribunalian oiltu zaun erraitra bere emaztiak: Ezizte sar justo konen gaizetan, zeren baitra anitx kongoja padezitu tuanak egun ametstan, Aren kausaz.
20. Bitartio sazerdotien prinzipalek eta Zarrek inzitatuz zein iriari eska zedin Barrabasen libertadia eta Jesusen iltia.
21. Kala da nola, geltegiten zabeilarik berriz Presidentiak, eta erraiten: Zoin bietarik nai tzei solta dazkidaizein, erresponditu baizein ek: Barrabas.
22. Erreplikatu zabein Pilatosek: Zer egin biar dur bada Jesustaz deitiua Kristua?
23. Erraiten dei guziuk: Izan deila kruzifikatrak. Eta Presidentiak. baya ¿zer gaixki egin du? Baya urak asi zren irago andiago egitra, erraiten: izan deila kruzifikatrak.
24. Zoinekin ekustian Pilatosek deus ez ziola antzintan, leinaz bai aldi bapanian anditan zela tumultua, manatan ziolarik eragu lezeila ur, ekuzi ztion eskiuk iriaren agerrian erraiten: Inozente naz ni justo konen odolaz: kor edo kan konpon ztei xek.
25. Zoini errespondituz iriak guziuk, erran zion: Eror deila Aren odola gore eta giauren semen gain.
26. Gunian soltatu zabein Barrabas; eta Jesus, azotatuaz geroz, entregatu zion beren eskiuetan izan zedein kruzifikatrak.

27. Desegida Presidentiaren soldaduek, artan zeilarik Jesus eta izartan zeilarik Pilatosen pretorio edo palazioaren portikuan, xuntatu zren Aren unguriuan koorte edo konpañia guziua osorik.
28. eta belaizruk izartan zeilarik, estaltu zein granzko mantu batez.
29. eta irazkitan zeilarik ñardun korona bat, izari zabein buriuaren gainian eta kaña bat zetrotako bere eskoineko eskiuan; eta belairuko izarten zrelarik eskarniatan zabein erranez: Jangeikuak salba zitzala, judiuen Erregia.
30. txutx egoxten zabeilarik, artan zein kaña, eta buriuan eriten zabein.
31. Eta kola artaz mofatu zrenaz geroz, gentu zabein mantua; eta izari zabeilarik berriz bere beztido propiua, erkin zabein kruzifikatruk izaitra.
32. Erkitian ziudadetik erden zein gizon bat Zireneko ume, izenez zionak Simon, zoini obligatu zabein karga zedin Jesusen krutxiarekin.
33. Eta eltu zrelarik leku Golgota deiten dein batra, nai baitu erran, kalbariuaren edo kalaberen lekiua.
34. kan emon zabein edatra arda nastekatruk gibel minekin baya Ark testatu ziolarik ez nay ekuntu zion edan.
35. Kruzifikatu zeilarik geroz, errepartitu ztein beren artian Aren bestiduak egoxten zeilarik suerte, edo sortiarian zteilarik. Konekin kunplitu zen profezia erraiten baitu: Errepartitu zein beren artian Ene beztiduak, eta sortiari zein Ene tunika.
36. Eta xasertan zrelarik Ari xunto edo Aren altakan guardatan zabein.
37. Izari zabein buriuaren gainian ele kuek entelegatra emoiten baizein Aren kondenaziaren edo sentenziaren kausa.

## KAUR DA JESUS JUDIUEN ERREGIA

38. Tenpra berian izan zren kruzifikatruk Arekin bi ladron, bata eskoinara eta berzia ezkerriara.
39. Eta kantik igartan zrenek blasfemiarian eta eskarniatan zabein buriuaz muela egiten zabeilarik erraiten:
40. ¡O! Zuk desegiten tzuna Jangeikuaren tenplua eta iror egunez berritan tzuna, salba zte ziauri: Jangeikuaren Semia balimazra, xaix zte krutxetik.
41. Gisa berian, baita ere sazerdoten prinzipek eskribain eta zarrekin batian, insultatan zabeilarik, erraiten zein:
42. Berze banak salbatu tu eta bera ezdeiteke salba; Isrraeleko erregia balimada, xatx deila oray krutxetik eta xinetsen digu Artan.
43. Arek edo Ark izartan du konfianza Jangeikuatan; bada Jangeikuak kainbat maitatan badau, libra dazaula oray, yaketa bera ere erraiten baizion: Ni naz Jangeikuaren Semia.
44. Eta kori bera egotxtan zabein begitartiara baita ladron kruzifikatruk zaudenek ere Aren konpañian edo altaketan.
45. Baya eguerditik aiketa arrastriko iroretak artio, baratu zen lur guziua edo estaltruk edo estalirik ulunguetaz.
46. Eta iroren ordiari abantxu, esklamatu zion Jesusek mintzo andi batekin erraiten: Eli, Eli, Lamma Sabaktani? nai baitu erran: Ene Jangeikua, Ene Jangeikua, ¿Zeren desanparatu naizu?
47. Zoin entzutian unguriuan zaudenatarik zomaitek, erraiten zein: Eliasi deitan du konek.

48. Eta bertan laster egiten etarik batek, artu zion esponja bat, busti zion ozpinian, eta izaririk kaña baten puntan, emoiten zaun txupa lezan.
49. Berzek erraiten zein: Bego edo eitz zazei ekus zagun xiten zaunez Elias libratra.
50. Gunian Jesusek, klamatan berriz mintzo andi eta oxen batekin, entregatu zion bere espiritua.
51. Eta instantian tenpluaren belua urratu zen bi puska edo zatitan gain bera eta lurra ikaratu zen, eta partitu zren arriak;
52. eta sepulturak iriki zren, eta anitx sainturen korpizak, il bai zrenak, erresuzitatu zren:
53. Eta erkiten zrelarik sepulturetik Jesusen erresurrezioniaz geroz, xin zren ziudade saintiura, eta aparezitu zren anitxer edo anitxi.
54. Bitartio einturiako ofiziala eta arekin zaudenak Jesusen guardatan, ekustian lurraren ikareria eta agitan zren gaizak, bete zren lotsaz, eta erraiten zein: Egiazki gizon kaur zela Jangeikuaren Semia.
55. Zauden ere kan urrinarat anitx emazte, segitu baizren Jesusi Galileatik kuidatako aren asistentiaz edo aseptimentuaz.
56. Zeinetarik zren Maria Magdalena, eta Maria Santiagoren eta Joserren ama, eta Zebedeuren semien ama.
57. Izaitian xa berant, presentatu zen gizon abrats bat, Arimateako seme, izena baizion Jose, zoin baizen ere Jesusen diszipulo.
58. Kaur presentatu zen Pilatosengana eta eskatu zaun Jesusen korpiza, zoin manatu zion Pilatosek entrega lezabeila.
59. Josefek bada artan ziolarik Jesusen korpiza, ungurakatu zion mantre sain batian,
60. eta izari zion beraren sepultura batian, zoin irikiarazi baizion peña batian, eta ez baizion zerbutxatu oraino ere; eta arrimatan ziolarik arri andi bat zerratu zion sepulturaren aua edo sartia, eta fan zen.
61. Zauden kan Maria Magdalena eta berze Maria xaseririk sepulturaren aurkian.
62. Biramenian, baizen neskanegunaren preparazioniari segitan zena edo neskanegun bera, akuditu zren xunto Pilatosengana sazerdotien prinzipalak eta fariseuak.
63. Erraiten: Jeina, quartu gitra, inpostor karek, oraino bizi zelarik, erran ziola: iror egunez geroz erresutitaten naz.
64. Mana zazu bada guarda deila sepultura irorgarnen egunia artio: fan ezitian ber ere gayaz bere diszipuluak eta ebats tzein, eta erran tzein iriari: Erresuzitatu da ilen artetik; eta izan dein azken engañua edo utsa gaixtuago ezik leina.
65. Erresponditu zabein Pilatosek: Kor dakazei guardia: or tzei eta izar zazei urdu zaizein guziua.
66. Korrekin faitian kara, aseguratu zein onki sepultura, señalatan arria eta izarten edo isarten bixtazko guardiak.

OGEI TA ZORTZIGARNEN KAPITULUA. *Jesusen erresurrekziona: bere aparizona emazte saintiuer: aparezitan da ere apostoler, eta prometitan dabei bere protekziona.*

1. Antzinatruk xa neskanegun gaya, argitiari astiaren lein eguna edo igantia xin zen Maria Magdalena berze Mariarekin sepulturaren ekustra edo bisitatra.

2. Tenpra kontan senditu zen lurraren ikareria andi bat; zeren xatxi baizen zeuritik Jeinaren Ainguru bat, eta eltiari sepulturara bueltatu zion edo azkatu zion arria, eta xaseri zen gainian.
3. Aren begitartiak argitan zion iñazturak gisa, eta zen bere beztidura xuri elurren edo elurraren gisa.
4. Zointan baratu zren guardiak kain arritruk, bai zauden ilik bikala.
5. Baya ainguriuak, dirijitan zelarik emazter, erran zabein: xek etzei zer lotsarik ekun; zeren onki baitakid xiten zreila Jesus kruzifikatruk izan zenaren txerka;
6. baya ezdago kemen, zeren erresuzitatu baizen, antzinetik erran zion bikala. Xin ztei eta ekus zazei lekiua zointan sepultatruk baizagon Jeina.
7. Eta oray fan ztei baratu bage erraitra bere diszipuluer erresuzitatu dela; eta txezei fanen dela xen antzinetik Galilean: kan ekusen tzei. Prebenitan daizeid xa antzinetik.
8. Urak erkin zren instantian edo jesugian sepulaturatik lotsa eta gozo andirekin, eta fan zren lasterka berriaren emoitra diszipuluer.
9. Noizta Jesus erkiten zabeila enkontriuara, erraiten: Jangeikuak guarda zaizteila; eta abañatan zrelarik urak, postatruk lurrian, abrazatu ztein Aren zankuak eta adoratu zabein.
10. Gunian Jesusek erraiten dabei: Etzazei lotsarik ekun: fan ztei abiso emon zazei ene anaxer, fan tian Galileara, zeren kan ekusen bai nei.
11. Urak faiten zren tenpra berian, guardietarik zomait xin zren ziudadiara, eta kontatu zein sazerdotien prinziper agitu zen guziua.
12. Eta xuntatruk kuek, zarrekin, ekutian bere konzejua, emon zein deuri kantidad andi bat soldaduer,
13. instrukzione edo enkargu konekin: erran biar tzei: Gu lo gitzan delarik, xin zren gayaz bere diszipuluak eta ebatsi zein.
14. Zeren kaur el baledi Presidentiaren notiziara edo biarrietra guk aplakaten dagu eta eginen daiguzei bara ztein bakian eta libre.
15. Ek, errezibitu baikoz deuria, egin zein enkargatruk zauden bikala; eta baya kaur erabili da judiuen artian eguneko eguniarartio.
16. Bitartio ameka diszipuluak partitu zren Galilearako, mendi Jesusek seinalatu zabeiniara.
17. Eta kan ari ekustian adoratu zabein: Aunke zomaitek ekun zeila beren dudak korpizaren realidadiaren edo egiatarzunaren gainian.
18. Gunian Jesusek abañatan zelarik, erran zabein gisa kontan: Niri emon dazaitad potestade guziua zeurian eta lurrian.
19. Fan ztei bada, eta erakuts zazei gente guzier osagarriaren bidia, batixatan ditzeilarik Aitaren, eta Semiaren eta Espiritu Saintiuaren izenian:
20. Erakustan ditzeilarik kunplitra gaiza Nik manatu daidzein guziuak. Eta egon ztei zierto ñaur egonen nazala betik xekin aiketa sigluak akabatian bitartio.



Bigarren Capitulua. Nagien adoracionia:  
 Jesusen Egiptora inisia: inocenten muerteru cru-  
 cla (edo gassoa): Jesus, Maria eta Josi buoltatan  
 dra Egiptotie

- 1 Sortue bada izanbaiezu Jesus judeaso Belenen, reina-  
 tanciolari Herodesen nona magobanae sinoren iguzqui  
 erquinotie Jerusalemora gatteguiten. i nondago Judiuen er-  
 regina acabatudena sortiar?
- 2 Ceron que eusibaigu iguzquiaren erquinuian bere-  
 izarra eta inquitra hara adorotiazatie.
- 3 Caur entzun <sup>cionan</sup> erreque Herodesen, turbatecen eta hare-  
 quin Jerusalem gucia.
- 4 Eta mutatanziolarie sacerdotien principiale queina eta  
 irio eracuzate edo esribaiar, gatteguiten zabein non tiar  
 con sortu Cristredo Menasa
- 5 Zoini hec erresponditucein: Judaco Belenen: ceron cola  
 esribitubaiar Profetae.
- 6 Eta zu Belen, Judaco lurra, ezra Judaco ciudade prin-  
 cipalen artian eiertogui menosena, cerengatic zutarie ez  
 nontie erquin biaz baitu Caudillo gobernatoriar diona Herma-  
 leco ene iria
- 7 Guinian Herodesen, deitanziolarie lagunozue bagua  
 magiue, Naguincion ciudamentu erquin beretarie tempa  
 zortitan izarra apareitucitza bein.
- 8 Eta enaminatanziolarie Belenora, erranzabein: pan eta in-  
 formatei puntualgiri aguitandenez aur conenquinian; da erde-  
 nez querec abiso omonatuceid, ni ore pannein eta adoratzadon
- 9 Caur entzun <sup>baioz</sup> ~~bera~~ erreouiare, partituzaron: da nonta izar  
 eusiceina izuzquiaren erquinuian, faitoncen beren antzinian,  
 baratucen artio eltiari aurra lacon lequiuaren aurquara.
- 10 Gazarren ecustiar, anichqui regocijatuaren.
- 11 Eta etrian sartian, erdenecin aurra Maria bere ama reguan.

- 4
- eta posttratuarelarie adonatuarein; eta iriguitie bere copriac  
 Ofreiturabein urre, incensu eta mirraeo presentiac.
- 12 Eta errebita baicoz lotan abisobat ceuritie ezleditein  
 (edo ezitian) bicta Herodesen gana, bueatuzoren bere erriam  
 bere bidabatarie.
- 13 Arma partitua geroz, Geinaren ainguru bat aparecitu:  
 traun ametotan Joseri erraitanzaularie; Saquize, arazu  
 aurra eta bere ama, eta ines edo exca parte Egiptora, eta egon-  
 te can nie abisatudanartio; Coron Herodesei cheratenbaitu  
 aurra ilorantao.
- 14 Saquitancelarie Jose, artucien aurra eta bere ama gayaz,  
 eta erraituzen Egiptora,
- 15 non egonbaicen, Herodes ileen bitartie; xicintar guisaz cumpli-  
 tucien Geinae erranciona Profetaren mintaco: Nie deitucion Egipt-  
 totie ene semia.
- 16 Bitartio Herodesei, ecustancelarie burlatue maquen ganie  
 iritatuca sobranio, eta ordenu emoncion illaco, Belenen eta  
 bere unguu quiuman aur zauden gucuae, bi urtetarie apal,  
 segun tempa Saquineona maquen ganie, zointan aparecitu  
 izabein izarra.
- 17 Gunian ecusien cumplitue erranciona antzinetic pro-  
 feta Jeremiasen erranez;
- 18 Amara draino ere entzunzen mintzuae, anich nesar  
 eta irago; da Raquel nesar eguiten, bere semengatic, nai  
 izanbaque consolatue, ceren ezbaidra biei, edo ezbaidra biei
- 19 Herodesen muertia aguituz bertan, Geinaren ainguribat  
 aparecituca lotan Joseri Egipton erraitanzaularie; fanze
- 20 Saquize eta arazu aurra eta bere ama, eta bincen  
 Goraileco lurriara, coron ilbaitta sin maquinatan ceina  
 auraren vicaren contra.
- 21 Saquitian Jose, artucien aurra eta bere ama, eta bincen  
 Goraileco lurriara.
- 22 Baya entzutian Arguelaco maratuca eta Judean, lotatucen  
 cana fatra; eta abiatue ametstan, erreitatucaen galileaco lurriam
- 23 Eta bincen fici izaitra ciudade batian deitanbaicen Nazaret,  
 cumplitan celarie quisa contan Profeten errana: Ecuendu icena  
 Nazareno. edo izanonda deitue Nazareno

Advertencia. (Del manuscrito original).

En la siguiente traducción se advertirán algunas irregularidades muy chocantes en algunas palabras: por ejemplo en la proposición *para*, en el bascuente *tako*, unas veces se pronuncia así *taco*, otras veces *teco*;

v. g.: *izaguntaco*, *emoiteco*, &: esta misma anomalía se observa en las terminaciones de otros verbos; por ejemplo: diciendo, *erraiten*; viendo, *ecustan* y otros muchos que así se pronuncian con esta variedad sin saber darnos la razón de por qué.

Igualmente sucede con estas palabras o voces: *calaco*, otras veces *colaco*; *zore*, *zure*, *beicic*, *baicic*; *arc*, *arec*, y algunas otras se pronuncian con esta variedad según el sentido de la conversación.

Aunque parezca supérfluo, me permito anotar, que las palabras que terminan en *r*, por regla general tienen el sonido de *r* fuerte o de dos *rr*; las excepciones relativamente son pocas, como por ejemplo tienen el sonido de *r* suave: *caur*, esto; *ur*, la agua; *iror*, *laur*; los verbos de presente, pretérito perfecto y futuro imperfecto en sus primeras personas del singular, como *ecustandur*, *ecusidur*, *ecusendur* &.

